

1 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Gaizka, 28 urtetako gaztea, mendian behera dator korrika. Bere Amama Juliana, 90 bat urtetako emakumea, bere bizkarrean darama. Amamak ez du itxura batere onik, aurpegia lokatzez betea, odola eskuetan. Kamisoi zuria busti-bustia, odolez eta lokatzez zikindua du. Lo dagoela dirudi.

Gaizka korrika dator, arnasestuka, sufritzen.

Amamaren ile zuri luzea bere lepotik jausten da. Amamak Gaizkaren lepo aldean hartzen du babesa.

Gaizkak oso nekatua dirudi, gelditu egiten da. Amama lurrean etzaten du. Erdi lo dago. Esmatzen saiatzen da.

Arnasa sakon hartu ondoren besoekin Amama bere bizkarrera ondo estutu eta berriro beherako bidea hartzen du. Amama ez da jada lepora ondo heltzen. Jausteko zorian dago. Gaizka gelditu, Amamaren bi eskuak juntatu eta lortzen du Amamaren eskuak lepoaldeari heltzea.

Gaizka goitik behera dator, kamera aurretik pasa eta bidean behera jarraitzen du. Gaizka atzetik bidean behera ikusten dugu. Behean, urruti xamar, baserria eta Gaizkaren bizkarretik soka bat ateratzen dela ikusten dugu, lurrean bukatzen den soka bat. Kamerak soka jarraitzen du, mendi aldera bueltatzen da berriro kamera soka jarraituz. Soka belar artean sugea balitz bezala mugitzen ikusten dugu. Soka ez da bukatzen, basoan gora zuri zuri ikusten da belar eta garo artean.

2 BASERRIRAKO BIDEA. KANPOA. EGUNA.

Sekuentzia experimental honetan tituluak sartuko ditugu.

Alde batetik sega eta bestetik desbrozadora, bideko sasi eta belarrak garbitzeko lanean. Teknika bakoitzaren soinu eta irudi esanguratsuenak muturreraino eramanaz eta muntaiaren bitartez kontra ipiniko ditugu. Bi tresna ezberdinen arteko kontrastea bilatuko dugu sekuentzia honetan.

Tomas, 65 bat urteko gizon indartsua eta ondoko baserriko gizon edateua, Jazinto, segarekin ari dira bide bazterreko belar eta sasiak garbitzen: Segarekin belarra mozten, eskuak segari helduta, izerdia aurpegietan... Belarra moztean sortzen den soinua berezi hori entzuten dugu, sega harriarekin zorrozten...

Lau gazte, tartean Gaizka, Tomasen semea, euskularru, kasko eta betaurrekoekin tapaturik desbrozadorekin bidea garbitzen: Motor hotsa, aurpegi espresio gabeak, kaskoak, eskularruak, desbrozadoraren puntako hariak belarra txikitzen, motor hotsa...

Amaia, Tomasen alaba, 25 bat urtetako emakume beltzarana, Super 8ko kamara batekin grabatzen ari da. Teleobjetibo bat du kameran ipinita. Urrunetik ari da lanean.

Amaia urrutira joaten da. Kamera kolokatu eta beste plano bat egiten du.

3 BASERRIKO BIDEA. KANPOA. EGUNA.

Bi zaharrak segan jarraitzen dute.

Urrutian Karmen, Jazintoren emaztea, ikusten dugu.

KARMEN

Jazinto!

Jazintok begiratu egiten du.

KARMEN

Bazkaria prest dago!

Jazintok eskua jaso eta baiezkoa ematen dio. Karmen badoa. Jazintok Tomasi begiratzeko dio. Honek keinu bat egiten dio.

JAZINTO

Bihotzekoa eman zidanetik ez zidak lana lasai egiten uzten.

Tomas begira begira du.

JAZINTO

Kalera joan nahi dik bizitzera.

Tomas harritu egiten da.

TOMAS

Ta hik zer egin behar dek kalean ba?

JAZINTO

Hori esaten zioat nik Andreari.

Jazintok Tomas agurtzen du, sega bizkarreratu eta badoa.

Kotxe baten etorrerak apurtzen du elkarrizketa.

Xabi, Tomasen seme zaharrena, bere emazte Sara eta umeak datoz kotxean. Desbrozadorekin lanean ari diren gazteen artetik pasatzean bozina jotzen du Xabik. Hauek eskua jasoz erantzuten diete.

Tomasen ondoan geratzen da kotxea.

Niko, lau urteko mutila kotxetik irten eta aitonarengana joaten da. Garazi 9 urteko neskatilak ere muxu ematen dio. Kotxetik Xabi, bere emaztea eta hauen ume jaio berria, Haizea, irteten dira. Sarak umea Tomasi eskuetan ipintzen dio.

TOMAS

Joño!!!! Zein da txiki hau?

4 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Familiaren zuribeltzeko argazki zahar bat ikusten dugu: Baserri aurrean famili guztia, dotore jantzita, argazkilariarentzat apropos jarrita daude.

Amaiak argazkia paretatik kendu eta mahaira inguratzen da. Familia osoa kafea hartzen ari da mahaiaren inguruan. Amaiak amari argazkia pasatzen dio.

3

Ixabel, 65 bat urteko etxekoandrea, Haizea jaioberria eskuetan duela, Sarari familiako argazkia erakusten ari zaio. Amaia fregatzen ari da. Xabik kafea serbitzen du. Familia guztia mahaiaren inguruan eserita dago. Amama, 90 bat urtetako amona elegantea, galleta bat jaten ari da.

IXABEL

Hau birraitona, hemen Aitxitxa eta Amama eta hau Tomasen aita. Tiburtzio. Semerik zaharrena. Baserrian geratu zena.

Argazkikoen artean gizon bat seinalatzen du Ixabelek. Gero ondoan dagoen beste gazte bat.

IXABEL

Javier eta Domingo Parisera joan ziren. Oso gazterik. Nahiko ondo joan zitzaien... Hau monja zen... Izeba Juanita. Bolivian bukatu zuen.

TOMAS

Nonbaitera joan beharra zegoen. Zortzi senide ziren eh! Orduan zer zegoen jateko ba?

IXABEL

Amaia! Ekarri Amamaren argazkien bilduma, mesedez.

Tomas Nikori kilimak egiten ari zaizkio. Hau oihuka ari da.

Gaizka elkarrizketatik kanpo dago. Egunkaria irakurtzen. Xabik patxaran botila egunkariaren gainean ipintzen du.

XABI

Zer? Txupito bat hartuko al degu?

Amaia egongelako armairutxora inguratu eta bertatik argazki bilduma bat hartzen du. Ixabeli pasatzen dio. Ixabelek zabaldu egiten du, Sara eta Amaia Amamaren argazkiak ikusten daude.

IXABEL

Begira, hau Amama gaztetan. Egunero egunero joaten zen astoarekin plazara tratura.

Amaia mahaiaren esertzen da. Kafea hartzen du. Amaiak Amama begiratzen du.

Amaia Amamarengana inguratzen da. Begiratu egiten du.

AMAIA

Amama. Non zaude?

Amama ez da mugitzen. Joanda bezala dago, irribarretsu.

AMAIA OFF

Amama. Beste mundu batean bizi dela dirudi. Beste garai batekoa da. Mundu zaharrekoa. Amamaren amamaren amamaren amama izan zitekeen.

Amaiak bere zimurrak begira geratzen da. Zimur bat jarraitzen du.

AMAIA OFF

Ba al dakizue orain dela laurogei amama
neolitikoan bizi ginela?

Ixabel argazkiak erakusten jarraitzen du. Aldi berean txikia eskuetan
darabilki. Onomatopeia ezberdinak ateratzen zaizkio txikiari zuzenduak.

Niko Xabiri lata ematen ari zaio.

NIKO

Benga aita, goazen! Goazen.

Xabi denei zuzentzen zaie.

XABI

Zer? Landatuko al degu landara hori?

Niko korrika irteten da. Ixabel, txikia eskuetan duela jeiki egiten
da.

XABI

Argazki batzuk aterako dituzu ez amaia?

AMAIA

Noski.

Amaiak argazkia kamera eta super 8koa ere hartzen ditu. Baita tripodea
ere.

5 KOLORETAKO BASOA. KANPOA. EGUNA.

Kamera tamaina ezberdinetako zuhaitzez osatutako basora inguratzen ari
da.

Gaizka zuhaitz landarea sartzeko zuloa egiten ari da. Ixabelek bere
biloba eskuetan dauka. Tomas inguruan dago.

Gaizkak Nikoren laguntzarekin landara sartzten du.

Amaia grabatzeko prestatzen du super 8ko kamara. Amama, Xabik dakarren
aulki batean esertzen da Sarak lagunduta.

AMAIA

Benga. Ipini zaitetze bakoitza bere arbolaren
aurrean.

Amaiak bakoitza "bere" arbolaren aurrean grabatzen du. Banan banan,
arbolaren aurrean kamerari begira.

AMAIA OFF

Baserria ez da sekula banatuko. Inondik
inora. Hori da baserriko legerik sakratuena.

Ixabel Haizea eskuetan duela landatu berri duten landarearen aurrean.

Niko ia koxkortzen hasi den landara baten aurrean.

Garazi indartuta dagoen 9 urteko arbolaren aurrean.

Xabi eta Gaizka jada indartuta dauden 30 bat urtetako haritzen aurrean.

AMAIA OFF

Baserria seme edo alaba bakar baten esku
geratuko da. Oso osorik. Besteek baserritik
alde egin beharko dute.

Amaiak argazki kamara tripodean ipintzen du. Enkuadrea egiten ari da.

AMAIA OFF

Lehen seme zaharrena izaten zen etxean
geratzeko erantzunkizuna jasotzen zuena.

Amaiak kameraren disparadorea ipintzen du martxan.

AMAIA

Listo eh! Banoa!

Korrika "bere" arbolara zuzentzen da eta zuhaitzaren aurrean kolokatzen
da. Beste denak "euren" arbola aurrean daude kolokatuak.

AMAIA

Listo!!!

AMAIA OFF

Gaur egunean oinordekoa aukeratu egiten da.

Amama aulki batean dago eserita dena begira.

Tomas baserrira zuzentzen da. Ixabelek Amamari eskuetan ipintzen dio
ume jaio berria. Honek gozatu egiten du.

Amaia Amamarengana inguratu eta grabatu egiten du. Umea negarrez hasten
da. Amamak hitz goxoak esaten dizkio. Baina umea ez da ixiltzen. Sara
inguratu eta umea eskuetan hartzen du. Amaiak grabatzeari uzten dio.

AMAIA

Etorri Amama.

Amama eskutik hartu eta zuhaitzen aurrera eramaten du. Amaiak ile
mototseko orratzak kendu eta mototsa soltatzen dio. Ile luze zuria
solte geratzen da. Eskuarekin ilea zabaltzen dio. Jertsea kendu eta
kamisoi antzerako blusa zuri batekin dotore dago Amama.

Amaia harritu egiten da aurrean duen irudiarekin. Amama nahiz eta
joanda bezala egon irribarretsu eta jolasti dago. Amaiak Xabiri
begiratzen dio.

AMAIA

Xabi... Fabore bat egingo didazu?

Xabik buruarekin baietz.

AMAIA

Ekarriko dizkidazu pintura poto batzuk
trasteleketik?

Xabi harritu egiten da. Baina prest dago.

AMAIA

Hiru kolore. Gorria, beltza eta zuria. Eta
hiru brotxa.

XABI

Bale!

Xabi badoa.

GARAZI

Lagunduko dizut.

Biak korrika joaten dira.

Amaiak Amama begiratzen du.

AMAIA

Gaizka...

Amaiak etortzeko keinua egiten dio. Gaizka inguratzen zaio.

AMAIA

Ile hori dantzan ipini behar duzu.

Amaiak itxitura ondoan dagoen plastikozko tapa zahar bat seinalatzen dio eta eskuarekin abanikatzen ariko balitz bezala egiten du.

Gaizkak eskuetan hartzen du tapa. Amamarengana inguratzen da. Haizea egiten hasten da. Ilea dantzan hasten da. Amaiak kameran irudia begiratzen du.

AMAIA

Izugarria!!!

Amamaren irudiarekin pozik dago Amaia. Atzean basoa dago. Amama kamerari begira dago, begirada politta du. Ilea pixka bat mugitzen zaio.

6 KOLORETAKO BASOA. KANPOA. EGUNA.

Amamaren inguruan mugimendua hasten da. Amama familiako zuhaitzetako bat zuriz pintatzen deskubritzen dugu. Xabi zuriz pintatutako arbolaren aurrean kamerari begira ikusten dugu.

Amama disfrutatzen ari da jolasarekin. Orain pintura beltzez margotzen du beste zuhaitz bat. Beltzez pintatutako arbolaren aurrean Amaia kamerari begira ikusten dugu.

Hirugarren zuhaitza gorritz margotzen du.

AMAIA OFF

Amamaren koloreak....Etxerako aukeratutako bilobarentzat kolore gorria...

Gaizka gorritz margotutako arbolaren aurrean ikusten dugu kamerari begira.

AMAIA OFF

Flojo xamarra, alperra eta indar gabea dirudienarentzat kolore zuria...

Arbola txuriaren aurrean Xabi txuriz pintatua ikusten dugu.

AMAIA OFF

...Bihurria, errebeldea, desobedientearentzat
kolore beltza...

Amamak beltzez pintatzen dio aurpegia Amaiari.

Gaizka bere ilobarekin ari da jolasten. Niko Gaizkaren bizkar gainera igotzen da. Hau bueltak ematen hasten da.

Iloba lurrera bota eta kilimak egiten dizkio. Amaia zelaian eserita biak begira dago. Justu euren atzean baserria geratzen da. Amaia mugitu egiten da kamerarekin angelu polit bat bilatzen. Amaiak Gaizka deitzen duela ikusten dugu.

Gaizkak zaplateko maitagarri bat ematen dio Nikori. Honek ezin dio barreari eutsi. Gaizka Amaiarengana inguratzen da. Amaiak non kolokatu behar den adierazten dio. Amaiak baserria Gaizkaren bizkar inguruan geratzea bilatzen du.

Amaiak argibide bat eman ondoren, Gaizka pisua gainean balu bezala egiten hasten da. Amaiak eskuak zabaltzeko adierazten dio.

Amaia grabatzen hasten da. Amaiak pisu gehiago balu bezela egiteko adierazten dio.

AMAIA

Pisu gehiago, hombre.

Azkenean badirudi Gaizkak baserria bizkar gainean duela.

7 KOLORETAKO BASOA. KANPOA. EGUNA.

Hiru arbola pintatuetatik pasatzen da kamera.

AMAIA OFF

Amamaren koloreak markatzen dizu etorkizuna eta baita iragana. Bizi guztirako. Zure patua neolitikoan idatzi zutela dirudi eta Amamaren bitartez iristen zaizu gaur egunera. Ez dago beste tartekorik.

Gorritz pintatutako zuhaitzean bukatzen da mugimendua. Pantaila guztia kolore gorriak betetzen duelarik.

GORRITIK

8 BASERRIA. KANPOA. ARRATSA.

Baserria ikusten dugu. Ilunabarra da. Gaizka ardiak deika ari da. Nikok ere berdina egiten du. Tomas ardiei pentsua ematen ari da.

Ardiak atera iristen dira. Gaizka eta Nikok ate aurrean itxoiten dute ardi guztiak pilatu arte. Tomas atzerago dago. Ondoren atetik baztertu eta artaldea pasatzen uzten dute. Ardiak pentsua jatera korrika doaz.

9 SUKALDEA. BARRUA. ARRATSA.

Ixabel bakarrik dago sukaldean. Mahaia ipintzen ari da. Bederatzi kubierto ipintzen ditu.

Gaizka sukaldera sartzen da. Ama agurtu eta eskuak garbitzen hasten da.

Lehiotik kanpora begira geratzen da. Tomas baratzean lanean diardu. Ixabelek ere kanpora begiratzen du.

IXABEL
Zer? Esan al diozu?

GAIZKA
Ez.

IXABEL
Nahi baduzu nik kontatuko diot.

Gaizkak ezezkoa adierazten dio buruarekin eta kanpora irteten da.

10 SEK ESPERIMENTALA. ZIMURRAK.

Amamaren aurpegiko zimurrek pantaila osoa betetzen dute, kamera ezkerreantz mugitzen hasten da eta zimur bukaezin batean sartzen gara. Emakume ahots baten xuxurlak entzuten ditugun bitartean.

AMAIA OFF(XUXURLATZEN)
Orain dela laurogei Amama, kobazuloetan bizi ginen.

Zimurren artean murgilduta jarraitzen dugu. Kamera zimur bat jarraitzen ari da, hau gero eta finagoa bihurtzen ari da, hau bukatzean beste zimur bati jarraitzen diogu, gero beste bati eta gero beste bati. Zimurrak ez dira sekula amaitzen, amaitzen ez den aurpegi luze batean paseatuko ba genuke bezala.

AMAIA OFF(XULURLATZEN)
Laurogei belaunaldi... Laurogei biloba...
Laurogei erlazio...

Kamera geratzen doa. Zimurretatik pixka bat aldendu eta Amamaren aurpegia ikusten dugu. Kamerak atzeraka jarraitzen du. Amama baso aurrean ikusten dugu, ilea solte eta kamisoi zuria jantzita, bere atzean beste amama juliana bat eta atzean beste bat...

Amama Juliana askotan errepikatua ikusten dugu basoan. Denak kamisoi zuriarekin jantzita, bata bestearen atzean daude, ilaran, denak kamerari begira, geldi-geldi.

Kamera Amama guzti hauen artetik dijoa aurrera. Amonez osatutako tunel batean bezala goaz aurrera. Amamak alde banatan daude. Esaldiak xuxurlatuz. Kamerak amamen artean aurrera jarraitzen du.

Kamera amama batengana inguratzen hasten da. zimurrak bakarrik ikusten diren arte. Orduan kamera zimur hori jarraitzen hasten da. Hasieran bezala zimurra ez da amaitzen. Beltzera doa irudia.

11 AMAIAREN GELA. BARRUA. EGUNA

Amaiak Gaizka begiratzen du. Gaizkak irribarre egiten du.

GAIZKA
Polita.

AMAIA
Benetan?

GAIZKA

Asko.

AMAIA

Zuk uste? Ba dago zerbait ez nauela batere konbentzitzen, baina ez dakit zer den.

GAIZKA

Igual textoa da.

AMAIA

Ez dakit... Duda asko dauzkat. Zertarako egiten det guzti hau?

GAIZKA

Zer nahi duzu jubilatuei akuarela kurtsiloak ematen bukatu ala?

AMAIA

Nik zer dakit ba.

GAIZKA

Nik dakidan bakarra aurreko aldian ere horrela ibili zinela. Eta gero kristoren erakusketa atera zitzaizula.

AMAIA

Orain baino askoz zentratuagoa nengoen.

GAIZKA

Amaia, zu zentratu zentratua ez zara sekula egon.

Amaiak irribarre egiten dio.

AMAIA

Hori egia da.

GAIZKA

Nondik atera dezu neolitikoko kontu hori?

AMAIA

Ez al zenekien orain dela laurogei amama neolitikoan bizi ginela?

GAIZKA

Bai zera.

AMAIA

Hasi kontaktzen.

Gaizkak ez du oso ondo ulertzen.

AMAIA

Neolitikoa urruti dagoela dirudi... Baina laurogei amama ez dira hainbeste ezta?

Ixilunea egiten da. Gaizka inguruko irudiak begiratzen ari da.

GAIZKA

Oso gauza ederrak egiten dituzu. Bruselan erakusketa bat lortu behar dizut.

AMAIA
Ez legoke gaizki.

GAIZKA
Bisitan etorriko zara ezta?

AMAIA
Noski baietz. Brusela zer moduzkoa da?

GAIZKA
Hiri txiki bat da. Bilbon antzekoa. Uste det gustatuko zaidala.

Amaiak ordua begiratzten du.

AMAIA
Bueno, despedidako parranda egin beharko degu ez?

Gaizkak baietz.

AMAIA
Xabi deituko det.

12 TABERNA. BARRUA. GAUA.

Musikarekin nahastuta taberna ezberdinetako irudiak ikusten ditugu. Gaizka, Xabi eta Amaia parranda disfrutatzen ari dira.

13 TABERNA. BARRUA. EGUNA.

Amaia dantzan ari da beste gazteen artean. Indartsu dabil dantzan. Izerdiarekin begietako makillaje beltza aurpegian zabaldu zaio. Kamiseta ere beltza du.

Gaizka ere gustura dabil.

Xabi berriz barran dago. Bere anaiak begira.

14 HERRIKO KALEAK. KANPOA. GAUA.

Gaizka, Xabi eta Amaia tabernatik irteten dira. Barruan musika a tope entzuten da. Xabik bi musu ematen dizkio Amaiari. Besarkada handi bat Xabiri. Xabi alde batetik eta Amaia eta Gaizka bestetik dijoaz.

GAIZKA
Non dago?

AMAIA
Pixka bat aurrerago.

Amaiak furgoneta seinalatzen dio.

AMAIA
Hortxe bertan dago.

Furgoneta dagoen lekura iristen dira. Amaiak furgoneta zabaltzen du.

11

Biak barrura sartzen dira.

GAIZKA
Gidatzeko bezala zaude?

AMAIA
Erraz.

Amaiak furgoneta arrankatzen du. Musika ipintzen du.

15 HERRIKO KALEAK. KANPOA. EGUNSENTIA.

Amaiaren furgoneta herriko kaleetatik dijoa. Musika a tope. Abesti bat kantatzen dijoaz anai arrebak.

16 BASERRIA. KANPOA. EGUNSENTIA.

Tomasek baserriko atea zabaltzen du. Atea zeharkatu orduko kanpoko argia piztuta dagoela konturatzen da. Itzali egiten du. Itzalitako bonbilla begiratu eta berriro pizten du.

Bonbilla piztua zero argiaren aurrean ikusten dugu.

Tomas "Lagun" txakurrarengana inguratzen da. Lagun katean lotua dago. Karizia pare bat egiten dizkio.

Baserriaren ondoko aterpera zuzentzen da. Segak kirtenetik soltatzen du giltza berezi batekin. Segari kirtena kendu eta burdinarekin geratzen da eskuan. Burdinezko euskarri bat duen enbor batean eseri, sega burdinaren gainean kolokatu eta segari mailuarekin kolpeak ematen hasten zaio. Kolpe txikiak jarraian.

17 BASERRIKO BIDEA. KANPOA. EGUNSENTIA

Amaiaren kotxea zuhaitzez inguratutako zementuzko bidetik dijoa. Abiada ederrean.

Baserrirako azken igoera hartzen dute.

18 BASERRIA. KANPOA. EGUNSENTIA.

Anai arrebak baserrira iristen dira. "Lagun", txakur zahar herrenak, ez dio zaunka egiteari uzten. Amaiak txakurra agurtzen du.

Gaizkak Tomas sega pikatzen ikusten du. Berarengana inguratzen zaio Gaizka.

GAIZKA
Egunon Aita.

Tomas serio dago.

TOMAS
Gabon. Gogoratzen haiz simaurra ateratzeko geratu ginela ezta?

GAIZKA
Bai bai. Oraintxe nator. Bale?

Gaizka badoa. Tomasek sega pikatzen jarraitzen du, serio.

Amaia sarrerako argia piztuta dagoela konturatzen da. Itzali egiten du. Aita begira du. Barrura sartzen da.

19 GARAJEA.BARRUA. EGUNA.

Ama berdurak kalean saltzeko kotxea prestatzen ikusten du. Berarengana inguratzen da.

AMAIA

Egunon ama.

Amaiak muxu ematen dio amari.

AMAIA

Ondo?

IXABEL

Bai. Ez duzu gosaldu nahi?

AMAIA

Ez. Ohera noa.

20 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA

Amaia sukaldean sartzen da. Amaiak muxu bat ematen dio Amamari, buruan maitia maitia ere egiten dio. Amaia badoa.

21 GAIZKAREN GELA. BARRUA. EGUNA.

Gaizka erropa eta guzti ohean etzaten da.

22 TRASTELEKUA. KANPOA. EGUNA.

Tomas sega pikatzen ari da. Sega pikatzean sortzen den zarata metaliko momotono bat entzuten dugu.

23 AMAIAREN GELA. BARRUA. EGUNA

Amaia ordenagailu aurrean lanean ari da. Irudia lantzeko programa batekin ari da. Gaizka baserriaren pisua eusten bezala grabatuta zituen irudi haiekin ari da lanean.

Gaizkaren beso zabalduen ganean familiakoen zuribeltzeko irudiak ipintzen ari da. Familiakoak kamerari begira baserriaren aurrean argazkirako kolokatuak super 8an grabatuak daude. Baserria kendu eta familiakoak banan banan Gaizkaren bizkar ganean ipintzen ari da Amaia. Irudiak funtzionatzen du.

24 GAIZKAREN AMETSA. SOKATIRA.

Baserria ikusten dugu super 8an. Gaizka presarekin irteten da baserriko ataritik bidean behera. Baserrian bukatzen den soka bat irteten zaio bizkarretik. Sokatiran erabiltzen duten espartzuskoko soka bat da.

Bat-batean kolpetik geratzen da. Harrituta dago. Sokari lotua dagoela konturatzen da.

Berriro saiatzen da aurrera joaten baina sokak ez dio uzten. Atzera begiratzen du eta amama askotan errepikatuta ikusten du sokatik tiraka. Indartsu ari dira sokatik tiraka zeren Gaizka baserri aldera

arrastaka daramate.

Gaizka saiatzen da aurrera egiten baina sokaren indarra izugarria da. Atzera begiratzen du berriz ere eta Amamak a tope ikusten ditu lanean.

Gaizkak lortzen du zutitzea. Aurrera egiteko indarra egiten hasten da. Pixka bat aurrera egiten du. Baina berriro atzera. Hain indartsu egiten du tira sokak lurrera jausten dela eta baserrira begira arrastaka darama sokak.

Jada ez du inor ikusten sokaren beste aldean baserria da beragandik tiraka ari dena. Nola ahala zutitzea lortzen du. Kristoren indarra egiten du eta poliki poliki aurrera egiten hasten da. Kristoren indarra egiten ari da.

Soka oso tente dago eta momentu batean apurtzen hasten da. Gaizkak indarra egiten jarraitzen du. Soka apurtu egiten da, ondorioz Gaizka amildegian behera jausten da. Jausten dioa soka amildegiko harkaitz batean engantxatzen den arte. Soka tentsatzean kolpea izugarria da.

25 GAIKAREN GELA. BARRUA. EGUNA.

Gaizka ohean kaleko erropekin esnatzen da.

TOMAS OFF

Gaizka!!!

26 AMAIAREN GELA. BARRUA. EGUNA.

Amaia bere gelan lanean.

TOMAS OFF

¡¡¡Gaizka!!!!

Amaiak atera begiratzen du. Lanean jarraitzen du.

TOMAS OFF

Gaizka!!!!

Amaia gelatik irteten da.

27 ESKAILERA-PASILLOA. BARRUA. EGUNA.

Amaia eskailera burutik behean dagoen aitari hitz egiten dio.

TOMAS

Gaizka!!!

AMAIA

Utziozu lo egiten.

Tomasek kasurik ez.

TOMAS

Gaizka!!!

AMAIA

Mesedez Aita. Utziozu lo egiten.

TOMAS

Gaizka!!!

AMAIA
Mekauen la leche!!!

Tomasek alde egiten du.

Amaia bere gelara bueltatzen da. Bat-batean Gaizkaren gelako atetik Gaizka irteten da. Ez du batere itxura onik. Amaia begira geratzen zaio, irribarretsu. Gaizkak oihu bat egiten dio agurtzeko.

GAIZKA
Mmmmmmmmm!!!

Amaia bere gelara dioa. Gaizka komunera zuzentzen da. Txorrora inguratu eta trago bat ur edaten du. Aurpegia ureztatzen du.

Gelara bueltatzen da. Baseriko erropak jazten ditu.

28 SOROA. KANPOA. EGUNA.

Traktorearekin soroan simaurrak zabaltzen ari dira Gaizka eta Tomas. Traktorearekin soroan zabaldu ondoren simaur pilara iristen dira. Tomasek traktorearen motorra itzaltzen du. Biak sardeekin traktorea kargatzen hasten dira. Gaizka urduri xamar dago. Aita behin eta berriz begiratzen du.

GAIZKA
Aita.

Tomasek buruarekin zer nahi duen galdetzen dio.

GAIZKA
Aita... Lan bat eskeini didate... Bruselan...

Tomasek serio begiratzen dio bere semeari. Segituan sardea simaurretan sartu eta traktorea kargatzen jarraitzen du.

Gaizka deskolokatua geratzen da. Berak ere lanean jarraitzen du.

Biak isilean lanean jarraitzen dute.

29 KOMUNA. BARRUA. EGUNA.

Gaizkak dutxa bat hartzen du.

30 GAIKAREN GELA. BARRUA. EGUNA.

Gaizkak motxilaren kremlera ixten du. Gela begiratzen du. Gelatik irteten da.

31 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA

Gaizkak Amamari besarkada estu bat ematen dio.

Leiho ondoan dagoen amari ere besarkada polit bat eskaintzen dio.

Gaizka kanporuntz dioa. Ama atzetik dioa.

32 ATARIA. KANPOA. EGUNA.

Gaizkak "Lagun" agurtzen du. Amaia bere furgonetaren ondoan itxoiten dago.

GAIZKA

Txakur zaharra!! Potolo!!! Ea bueltan hemen haizen!!!

Pare bat kolpe ematen dizkio. Lagunek buztana mugitzen du.

Gaizka ingurura begira hasten da. Ixabel, Gaizka ingurura begira ari dela, konturatzen da.

IXABEL

Aita? Non dago?

Ixabel baserriko txoko ezberdinetan aita bila hasten da.

IXABEL

Tomas!!!! Tomas!!!

Gaizkak erlojua begiratzen du. Ingurura begira dabil. Urduri. Kotxean sartzen da.

Amaia Gaizkarengana inguratzen da. Elkarri begiratzen diote. Ixabel ere kotxera inguratzen da.

GAIZKA

Uztazu ama, ez da agertuko.

Ixabel urduritzen hasten da.

GAIZKA

Lasai ama.

Gaizkak irribarre behartu bat eskaintzen dio.

GAIZKA

Agur ama.

Amaia serio ingurura begira dago.

GAIZKA

Goazen Amaia.

Amaia kotxera sartu, arrankatu eta badoaz.

Ixabelek eskuarekin agurtzen du semea. Ama eskua jasota duela geratzen da Baserriko ate aurrean.

Kotxea bidean behera galtzen da.

Ixabelek eskua jaisten du, ingurura begiratu eta barrura sartzen da.

33 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Tomasek aizkora kolpe batekin enbor bat zabaltzen du. Bringatutako egur pila du ondoan. Beste aizkorakada bat.

Urrutian kotxea furgoneta karreteratik bajatzen ikusten da.

SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Ixabelek sukaldeko mostradorera inguratu eta kandela bat pizten du.

Tomas sartzen da. Ixabel berarengana bueltatzen da.

IXABEL

Non zinan?

TOMAS

Basoan.

IXABEL

Beti igual. Sekula ez zaude egon behar den lekuan.

35 FURGONETA. BARRUA. EGUNA.

Gaizka eta Amaia furgonetan dijoaz.

AMAIA

A zer kabroia.

GAIZKA

Lasai, Amaia, ez nuen besarkadarik espero.

Gaizkak bere arrebari begiratzen dio.

Amaiak poltsatxo bat ateratzen du. Gaizkari ematen dio. Gaizkak irribarretsu hartzen du.

GAIZKA

Eta hau?

AMAIA

Gutaz ez ahazteko.

Gaizkak poltsatik dotore enmarkatutako argazki bat ateratzen du. Amaiaren argazki landu bat da. Bertan Gaizka agertzen da bere bizkar gainean familiako arbasoak txuribeltzean dituela. Gaizka izugarri harritzen da argazkiarekin. Irrifarre fortzatu bat eskeintzen dio Amaiari.

GAIZKA

Eskerrikasko.

Gaizkak berriro argazkia begiratzen du. Amaiak Gaizkari begiratzen dio. Honek triste xamar dirudi.

36 AIREPORTUA. KANPOA. EGUNA.

Furgoneta aireportura iristen da.

AMAIA OFF

Baserri honetan gauza inportanteetaz sekula ez da hitz egiten, baina beti daude hor, beti presente.

Besarkada estu bat ematen dira. Gaizkak motxila pisutsua bizkarreratzen du eta badoa. Amaia begira geratzen zaio.

AMAIA OFF

Inork sekula ez dio Gaizkari aipatu
berarengandik espero zutena baserriarekin
jarraitzea zela, baina hitz bat bera ere
esan gabe, aitak, dena esan dio.

Amaia furgoneta gidatzen dioa. Nahiko serio dirudi.

37 BASERRIA. KANPOA. EGUNA.

Amaiaren furgoneta baserrira iristen da. Amaiak ingurura begiratzen du:
Aita sorroan traktorearekin lurra lantzen ari da. Amaia barrura sartzen
da.

38 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Ixabel sukaldean dago. Amaia sukaldean sartzen da.

AMAIA

Zer moduz ama?

Ixabelek triste dirudi.

IXABEL

Ondo.

Amaia sukaldeko mostradorearen gainean jesukristoren irudia duen
egutegi batengana inguratzen da. Bertan boligrafoarekin oharrak ipinita
daude.

AMAIA

Gaur rebisioa tokatzen da.

Amaia amamarengana inguratzen da. Muxu ematen dio. Ixabelengana
inguratzen da.

AMAIA

Nahi dezu nik eramatea?

IXABEL

Seguru zaude?

AMAIA

Bai, bai. Gustora eramango det.

IXABEL

Oso ondo.

Isabelek lapiko artean sartu eta kuzinatzen jarraitzen du. Lurruna eta
ke artean. Amaia bere amama begira geratzen da.

AMAIA OFF

Gaizkak kale egin die. Berarentzat planak
zituzten, familia osatu gurasoak nola
zahartzen ziren ikusteko.

Amama lo dago bere silloian eserita berarengana inguratzen gara.

AMAIA OFF

Neolitikotik datorren kate bat apurtu berri

da.

Egutegiko Jesukristoren irudira inguratzen gara.

AMAIA OFF

Hiriak irabazi du. Azken juizioa gertu da.

39 OSPITALEA. KANPOA. EGUNA.

Amama eta Amaia ospitaletik irtetzen ari dira. Amaiak eskuan sobre bat du, bestean besotik Amama darama.

40 FURGONETA. BARRUA. EGUNA.

Furgonetan dijoaz Amaia eta Amama. Autopistako irteera batean dijoaz, errotondaz eta zubiz betetako hirirako sarreran. Amama txundituta dago inguru guztia begira.

AMAIA OFF

Txikitan amamak azken juizioari buruz asko hitz egiten zuen.

AMAIA OFF

Kaleak dendaz eta errepidez beteko zirela...
Orduan, Antikristoa etorri eta mundua
bukatuko zela esaten zuen. Uste dut,
baserriaren bukaeraz ari zela. Baserria
arriskuan zegoela esateko bere modua zen. Gu
arriskuan geundela.

Kale komertzial bat zeharkatzen dute. Amama leihotik begira ari da. Amaiak Amama begiratzen du.

41 GALERIA. BARRUA EGUNA.

Amaia eta Amama arte galeria moderno batean sartzen dira. Sarreran dagoen galeristak agurtzen ditu. Bi musu ematen dizki biei.

GALERISTA

Zer moduz?

AMAIA

Oso ondo. Laurentekin geratuta nago.

GALERISTA

Enkargu bat egitera irten da. Laster etorriko da.

Galeristak amama begiratzen du.

GALERISTA

Aulki bat ekarriko dizuet.

Galerista badoa. Amaia eta Amama koadro baten aurrera inguratzen dira. Koadro abstraktu bat da. Amamak harrituta begiratzen du.

Galerista aulki batekin dator. Ikusten ari diren koadroaren aurrean kolokatzen du. Amama aulkira zuzentzen da. Amaiak laguntzen dio.

AMAIA

Eskerrik asko!

Galeristak irribarre egin eta bere mahaira zuzentzen da. Amama aulkian esertzen da Amaiaren laguntzarekin. Amaiak Amama gustura dagoela ikusten duenean erakusketa ikusten jarraitzen du. Amamak aurrean duen koadro abstraktua begira jarraitzen du. Geldi geldi dago, begirada koadroan du finkatua, trantzean dagoela dirudi.

Bikote bat sartzen da galerian. Amamaren ondotik pasatzean atentzioa deitzen diote edadetuak. Batez ere geldo geldo dagoelako. Hau ez da inor inguratu dela konturatu, koadroa begira jarraitzen du. Gizonak buelta bat ematen du Amamaren inguruan.

Amaiak erakusketa ikusten jarraitzen du.

Elegante jantzita dagoen gizon bat sartzen da. Laurent da, honek bikoteak inguratua duen Amamarengana begiratzen du.

Amama erakusketa begira dago, Laurent ikusten du. Berarengana inguratzen da.

AMAIA

Laurent!

Pare bat muxu ematen dira.

LAURENT

Zer moduz?

AMAIA

Oso ondo.

Laurentek amamarengana begiratzen du berriz ere. Amaiak Laurenten begirada jarraitzen du.

LAURENT

Amama?

Amaiak begiratu gabe erantzuten du.

AMAIA

Bai. Amama Juliana.

Laurentek eskua sorbaldatik pasa eta bere mahaira zuzentzen dira.

AMAIA

Zu zer moduz?

LAURENT

Presaka beti bezala.

Biak eseri egiten dira.

LAURENT

Noiz erakutsiko didazu zerbait?

AMAIA

Merezi duen zerbait dudanean erakutsiko dizut. Bale?

LAURENT

Ez da denbora asko geratzen. Eh!

AMAIA

Lasai. Ondo ari naiz lanean.

LAURENT

Kontratua prestatu dizut. Irakurri lasai, hitzegin genduen guztia bertan dago.

AMAIA

Ez daukat irakurri beharrik. Non sinatu behar da?

LAURENT

Horri bakoitzean bat.

Laurentek luma bat luzatzen dio. Amaia horri bakoitzean sinatzen hasten da.

Laurent amamarengana inguratzen da. Amamak koadrora begira jarraitzen du. Laurent oso gertu inguratzen zaio. Amamak ez da mugitzen.

LAURENT

Zure amama hau... Artea da!!!

Amaiak irribarre egin eta buruarekin baietz dio.

AMAIA

Nire musa berria da.

LAURENT

Benetan?

Amaiak buruarekin baietz.

LAURENT

Zerbait ikusteko desiatzen nago.

AMAIA

Zer Amama bagoaz?

Amama bere trantzetik atera eta jaiki egiten da. Laurentek aterarte laguntzen ditu.

LAURENT

Bueno neskatilak, laster arte.

42 BASERRIKO ATARIA. KANPOA. GAUA.

Amaiak zigarro bat erretzen du sarrerako mahaian. Gaueko soinuak adi adi entzuten ari da. Amaiak zigarroa mahai gainean utzi eta barrura joaten da.

Zigarroa itzali baino lehen Amaia soinua grabatzeko aparatu batekin bueltatzen da. Grabatzen ipintzen du. Kaskoak jantzi eta animalia hoiek denak ozen entzuten ari da.

43 SAGASTIA. KANPOA. EGUNA.

Tomas sagarrondo zahar bat kimatzen ari da. Sagarrondo pilo bat daude inguruan, sagarrondo handiak, zaharrak.

Tomasek Jazintoren baserrira begiratzen du. Kotxe bat iristen da. Jazinto lanean ari da. Jazintoren emazteak harrera egiten dio etorri berriari. Gizon batek oso kolore biziko kartel bat kolokatzen du baserriko balikoian. Salgai dagoela adierazten du kartelak.

44 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA

Ixabel barazki eta fruten kontserba poteak prestatzen ari da.

AMAIA OFF

Amak baserrian bakarrik geratzeari dio beldur, eta hala ere, bera izan da guk karrera bat ikasi eta baserriatik kanpo etorkizun bat izateko gehien burrukatu duena.

Amaia sukaldeko ateko zirrikitutik bere ama barazkiz inguratuta ikusten du. Gustura begiratzen du.

AMAIA OFF

Bera izan da, beti, familia honetako oreka mantendu duena. Baserrira eta hiriaren arteko zubia, aita eta gure arteko zubia.

Kamera kolokatu eta bere ama grabatzen hasten da. Ixabel kontserba potoak prestatzen ari da barazkiz inguratuta.

AMAIA OFF

Orain hiriak irabazi du. Amamak zioen bezela munduaren bukaeraren atarian gaude.

Ixabel sukaldetik atera eta Amaia kamerarekin topatzen du.

IXABEL

Zer ari zara?

AMAIA

Zu grabatzen ari nintzen.

Ixabelek alde egiten du. Amaia sukaldean sartzen da. Inguru guztia barazkiz eta frutaz betetzen du.

Amaiak kamararekin koadroa egiten du. Enkuadrea ikusten dugu: Isabel erdi erdian frutaz inguratuta ikusten dugu.

45 AMAIAREN GELA. BARRUA. EGUNA.

Amaia bere gelan ordenadorean lanean ari da. Barazkiz betetako sukaldean murgilduta.

Aita ardiei deika entzuten dugu.

TOMAS OFF

Tox, tox, tox...

46 IKUILUA. KANPOA. EGUNA.

Tomasek ardiei deitzen ikusten dugu.

Artaldea, bildots pilo batekin, ukuiluan sartzen da.

Tomas bildotsak ardiengandik bereizten hasten da. Bakarrik ez da oso ondo konpontzen. Ukuilutik irten eta sukaldean begiratzen du. Ez du inor ikusten.

Tomas baserrian sartu eta eskailera ondotik deika hasten da.

TOMAS

¡Amaia!

Ez du erantzunik jasotzen.

TOMAS

¡Amaia!

Joatera doan momentuan, goialdean zaratak entzuten hasten da. Ate bat zabaltzen dela entzuten dugu.

AMAIA OFF

Zer aita?

TOMAS

Lagunduko didazu?

AMAIA OFF

Banoa!

Amaiak katiuskak jazten ditu.

Tomas ukuiluan bildotsak ardiengandik banatzen saiatzen ari da. Amaia inguratzen zaio.

Amaia ardi artean bildotsak harrapatzen hasten da. Tomasek bildotsei eskua bizkarrean ipini eta ondo begiratu ondoren erabakitzen du ea alde batera pasa edo ez. Ardiak oso astoratuak daude. Bildotsak oso urduri.

47 BASERRIAREN ATARIA. KANPOA. ARRATSA.

Trasteleku kanpoan mahai bat dago. Mahaiaren gainean laban pare bat, zorroztarria eta trapua. Tomasek dakar bildotsa. Ixabelek soka batekin hankak lotzen dizkio.

Amaia, urrunetik, laneko arropak jantzita, ia ezkutuan, dena grabatzen ari da.

Tomasek kutxiloa zorroztea du. Ixabel inguratzen zaio lapiko bat eskuan duela. Tomasek kutxiloa lepoan sartzen dio bildotsari. Odola isurtzen hasten da. Ixabelek lapikoan jasotzen du odola.

48 AMAIAREN GELA. BARRUA. GAUA.

Amaia ohean sartzen da. Bildotsen negarrak entzuten ditugu. Amaiak ezin du lo hartu. Bildotsen negarrak entzuten ditugu. Ardiak, berriz, zelaitik erantzuten. Txakurra ere zaunka ari da.

Amaia jaiki eta ordenagailu aurrean lanean hasten da. Kaskoak ipintzen ditu. Mantatxo bat ipintzen du bizkar gainean.

49 BASERRIA. KANPOA. EGUNSENTIA.

Tomas soroko terrenoa lantzen ari da. Amaia inguratzen zaio bizkar gainean gaueko manta bera duelarik.

Begira geratzen da soroko sail guztia. Tomasek traktorea gelditzen du. Jada bukatu du terreno guztia prestatzen.

TOMAS

Zer lanerako gogoarekin ala?

AMAIA

Aita, beharrezkoa al da hain lursail handia landatzea?

Aitak ez dio erantzuten.

TOMAS

Lanak beldurra ematen dizu ala?

AMAIA

Ez ez dit beldurrik ematen, baina alperrik ere egitea ez zait gustatzen. Eta ez dut honetatik bizi nahi.

TOMAS

Lurra landatzeari uzten badiogu besteek nahi dutena jaten bukatuko degu.

AMAIA

Aita ez dizut esaten ez landatzeko. Gustatzen zait zu lurra lantzen ikustea. Baina ez horrelako terreno puska. Ez duzue horrela ibiltzeko ez edaderik eta ez beharrik ere.

TOMAS

Eta zer nahi duzu ba? Etxanda gora begira egotea ala?

AMAIA

Ez didazu entzuten, Aita. Bakarrik hainbeste ez landatzeko esaten dizut.

TOMAS

Ni etzaten banaiz hilda nagoelako izango da.

Tomasek haziak hartu eta zabaltzen hasten da. Amaia begira du.

AMAIA

Zuk nahi duzuna egin dezakezu baina ezin duzuna da, zure buruan bakarrik pentsatu.

Tomas urduri.

TOMAS

Dena dakizula uste duzu baina oraindik asko duzu ikasteko.

Amaia aita begira geratzen da.

TOMAS

Nik al dudan bitartean landatzen jarraituko

dut.

Amaiak buelta eman eta baserrira bueltatzen da.

50 AMAIAREN GELA. KANPOA. EGUNA.

Amaia bere ordenadorearen aurrean lanean ari da.

Aitaren kotxea iristen entzuten dugu. Txakurtxo baten zaunkak entzuten ditugu. Lagun ere zaunkaka ari da.

Amaiak leihotik begiratzen du.

51 ATARIA. KANPOA. EGUNA.

"Pastor Aleman" arrazako txakurkume bat saltoka eta zaunkaka ari da.

Amaia inguratzen da. Amaiak txakurkumea eskuetan hartzen du. Tomasek buelta eman eta Amaiarengana zuzentzen da.

TOMAS

Etzazu eskuetan hartu! Gaizki ikasiko du eta.

Tomas badoa. Amaia begira geratzen zaio. Amaia txakurrari laztanak egiten jarraitzen du. Lagun, txakur zaharra begira begira du.

AMAIA OFF

Baserrian, txakurrek ere, ofizio bat dute. Zaunka egiteko, ehizatzeke edo arditarako ez den txakurrak ez du ezertarako balio.

Lagun zaunka hasten da. Txakurkumeak berdina egiten du.

AMAIA OFF

Lagun-ek, baserri honetan gehien irau duen txakurrak, 15 urte daramatza kate horri lotua. Hori da bere lana.

52 ARGAZKI ZAHARRAK.

Baserriko argazki zaharrak ikusten ditugu. Txakur ezberdinen argazki zaharrak. Baserriko lanetan ari dira zuribeltzeke argazkietan.

AMAIA OFF

Beste edozein gauza baino inportanteagoa izan da lana baserrietan. Baserriak lana eginaz atera dira aurrera, bai orain eta bai Neolitikoan.

53 SEKUENTZIA ESPERIMENTALA. AUZOLANA.

Baserriko irudi lasaiak. Haizeak belar luzea mugitzen du. Atzetik hartuta ume batzuk belar artean korrika doaz zelaitik eguzkiaren kontra. Sekuentzia honetako irudiak oso poetikoak dira. Plano motz asko, desenfokeak, beti eguzkiaren kontra lan eginez eta soinua oso modu berezian landuz.

AMAIA OFF

Garai batean lanak batu egiten zuen. Baserri ezberdinetako kideak urteko lan gogorrenak

egiteko elkartu egiten ziren. Uzta auzolanean jasotzen zuten, horrela lana askoz arinagoa suertatzen zen.

Segaren mugimendu harmonikoak ikusten ditugu. Belar moztua nola etzaten den. Belar lehortua eskuareekin nola batzen duten. Umeak jolasean belarrarekin, Limoi urez betetako edalontziak... Ume bat belar sendor handi bat eramaten ikusten dugu. Ez zaio gorputza ikusten, bakarrik hankak.

Bat-batean traktore baten soinua entzuten hasten gara.

AMAIA OFF

Auzolana traktorea baserrietara iritsi zenean bukatu zen. Elkarrekin lan egiteari utzi zioten. Akabo limoi ura, auzoko gazteen arteko begirada lotsatiak eta umeak zelaietatik korrika.

Estampa idiliko hau gidaririk gabeko traktore batek apurtzen du. Belarra jasotzen ari diren atzean dagoen bidetik gora traktorea doa. Familia guztiak lana egiteari utzi eta traktorea begira daude isilik.

AMAIA OFF

Ustez traktoreak baserriko lanak arindu behar zituen, baina kontrakoa gertatu zen. Baserritarrak, traktoreak ordaintzeko, fabrika lan egiten hasi ziren, baserriko lanak egiteari utzi gabe. Horrela, lehen zuten baino lan gehiago egiten bukatu zuten.

Traktoreak bidean gora jarraitzen du gidaririk gabe. Traktorearen atzean Xabi ikusten dugu eta bere ondoan Tomas, oso urduri dago, kezkatuta, ea traktorea bidetik aldendu eta jausiko den. Xabik lasaitzeko keinua egiten dio.

AMAIA OFF

Orain berriz dena sobran dago. Bai traktoreak eta baserriko lanak. Baserriak usturatu eta txaletetan bihurtzen ari dira.

Amalia bere kamerarekin gidaririk gabeko traktorea grabatzen ari da. Traktorea Amaliaren enkuadretik ateratzera dioa. Eskuarekin Xabiri momentu bat itxoiteko eskatzen dio. Tomas urduri. Traktorea bidetik aldentzen ari da.

TOMAS

Mecauen...

Amaliak xabiri eskuarekin nahikoa dela adierazten dio.

AMAIA

¡Listo!

Xabi traktorearen bila dioa korrika. Gidariaren lekura salto egin eta traktorea geratu egiten du. Arrebari begiratu eta honek oso ondo atera dela adierazten dio.

AMAIA

Oso ona!

Tomasek ezezeko keinua egiten du.

54 ZELAIA. KANPOA. EGUNA.

Familia osoa belar lehorra jasotzen ari dira. Jazinto eta bere emaztea ere laguntzen ari dira. Traktorea belarrez bete dute.

55 GANBARA. BARRUA. EGUNA.

Tomas, Xabi eta Amaia belarra ganbaran sartzen ari dira. Tomas traktore gainean sardearekin barrura botatzen du belarra. Amaia eta Xabi berriz ganbara barruan belarra barrenera pasatzen ari dira.

56 GANBARA KANPOA. KANPOA. EGUNA.

Amaia eta Xabi ganbaratik kanpora ateratzen dira. Izerditan eta hautsez beteak.

Ixabel pare bat zerbeza latekin dator. Amaia eta Xabik zerbezak zabaltzen dituzte. Traktorearen erremolkean esertzen dira.

IXABEL

¿Zer moduz?

XABI

Izugarri ondo.

Amaiak irribarre egiten du.

XABI(IRONIKOKI)

Hemen agroturismo bat zabaldu beharko genuke... bertan lan egiteko aukera eskainiz... Enpresetako langileentzat! Estresa kentzeko!!!! (ahotsa aldatuz) Lan egiteko aukera ematen dizun landetxea!!!! Errelejatzeke eta lantaldea indartzeko aukera paregabea!!!

Ixabel badoa. Amaiak ingurura begiratzen du. Trasteroa traste zaharrez bete dago.

AMAIA

Egunen batean egingo al degu garbiketa bat hemen? Trasto guzti hauek txatarretara bota eta...

Amaiak zerbezari trago ematen dio. Amaiak aitari begiratzen dio.

Aita eskobarekin bidean jausitako belarra garbitzen ari da.

AMAIA

Egia esan, lana besterik ez dute egiten.

XABI

Hombre, Gaizkak ere asko egiten zuen.

AMAIA

Goizetik gauera arte ez dira geratzen. Azkenean gaizki bukatuko dute.

XABI

Nahi dutelako egiten dute lan. Eta ez pentsa, pertsona batzuk lanak mantentzen ditu bizirik.

AMAIA

Gauza bat da eginbeharrak edukitzea eta beste bat, hau!!! (baratza seinalatzen du) Ikusi al dituzu orain ere zenbat tomate landara jarri dituen?

XABI

Lau landatu edo lau "ciento" landatu berdin kostatzen da...(Tomas imitatuz)

Amaiak serio dago. Xabik harrituta begiratzen dio.

XABI

Zer?

AMAIA

Kezkatuta nago pixkat baserriarekin. Ez dakit nola baina hemengo martxa gutxitu egin beharko genduke.

Amaiak buruarekin baietz.

XABI

Zu zer? Baserrian geratuko zara ala?

AMAIA

Ni? Ez dakit. Alde batetik gustora nago, baina bestetik beldurra ematen dit.

Xabik Amaia begiratzen du.

AMAIA

Batez ere, nire buruak ematen dit beldurra.

Amaiak Xabi begiratzen du.

AMAIA

Eta zu? Hemen biziko zinake?

XABI

Nik uste baietz.

AMAIA

Benetan?

XABI

Sarari ere asko gustatzen zaio.

Xabik buruarekin baietz. Xabik kolpetxo bat ematen dio Amaiari.

XABI

Zer? Meriendatuko al degu?

Amaia begira geratzen zaio.

BASOA. KANPOA. EGUNA.

Hiru arbola pintatuetatik pasatzen da kamera. Zuriz pintatutako zuhaitzean bukatzen da mugimendua. Pantaila guztia kolore zuriak betetzen duelarik.

ZURITIK

58 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Xabik aurpegia zuri zuria dauka irinez beteta. Ogia egiten ari dira Niko eta Garaziren laguntzarekin. Aurpegia, besoak eta kamiseta irinez beteak ditu. Niko eta Garazi zuriz zikintzen saiatzen ari da. Hauek ederki ari dira pasatzen.

AMAIA OFF

Jaio orduko zuriz margotu zuten. Alperra, flojoa, biguna zela zioten denek. Eta barre egiten hasi zen. Azkenean bera da bizitzen ondoen dakiena. Gutaz barre egiten du.

Xabi zelai batean dagoen urez betetako bañeran sartua dago. Gustora.

AMAIA OFF

Baserritar zoriontsu bat izan zitekeen, baina kolore zuria tokatu zitzaion eta alperra, nagia eta batez ere, bizizalea bihurtu zen.

Ixabel, Sara eta Amaia tomate kontserbak egiten ari dira. Nagore, Amairen lagun bat ere laguntzen ari da. Ixabel oso pozik dago.

59 BASERRIA. KANPOA. EGUNA.

xabi eta familia badoaz.

60 AMAIAREN GELA. BARRUA. GAUA.

Amaia bere laneko mahaian ari da lanean. Amamaren eta iloba jaioberriaren inprimatutako argazkiak bilatzen hasten da. Gorputzeko zati ezberdinak guraizeekin moztzen hasten da. Ondoren gorputz zaharraren irudia gaztearen irudiarekin nahasiz collage ezberdinak egiten ditu. Amamaren irudiari umearen eskuak ipintzen dizkio, umeari amamaren eskuak...

61 AMAIAREN GELA. BARRUA. EGUNA

Emakume baten gorputza jarraitzen dugu kamerarekin izara artean. Amaia lo seko dago.

TOMAS

¡Amaia! ¡¡¡Amaia!!!

Amaia esnatu egiten da. Amaiak leihoa zabaltzen du. Tomas behean dago.

AMAIA

Zer?

TOMAS

Lagunduko al didazu?

Amaiak baietz. Sumatzen da ez diola grazia handirik egin. Leioa itxi eta badoa.

62 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Amaia sukaldean sartzen da. Amama bere besaulkian lo dago.

63 SUKALDEA-KOMUNA. BARRUA. EGUNA.

Ixabel lurrunez inguratuta kontserba potoak egosten ari da.

AMAIA

Egunon.

IXABEL

Egunon.

Ixabelek kontserba potoak sutatik ateratzen ditu.

AMAIA

Ama, ezin dezue hainbeste lan egin. Lasai bizitzeko nahiko diru duzue. Goazen lana nola arindu pentsatzera!

IXABEL

Baserri honetan ezin da.

AMAIA

Zer ba?

IXABEL

Ezin delako.

AMAIA

Asko jaitsi daiteke.

IXABEL

Baserri batean ezin daiteke kalean bezala bizi. Hori beste aukera bat da! Dena utzi eta kalera joan bizitzera.

AMAIA

Mesedez, ama, ez dut uste hainbesterako denik. Hau toki ederra da bizitzeko. Oraindik indartsu zaudete. Disfrutatu!!!

IXABEL

Disfrutatu? Baserrian? Ni baserri hontara iritsi nintzanetik lana besterik ez dinat egin.

AMAIA

Eta? Daramazun bizitza gustatzen zaizu ala?

IXABEL

¿Gustatu? Ez dakit. Ez dakit gustatzen zaidan. Ohitu egin naiz, besterik ez. Amaia, ez idazu adarrik jo...

64 AMAIAREN GELA. BARRUA. EGUNA.

Amaia ordenagailu aurrean dago. Ez dirudi lanean ari denik. Musika ipini eta ohean etzaten da gora begira. Mobila deika du. Hartzen du.

AMAIA

Kaixo Laurent.... Bai badakit. Ez daukat oraindik prest. Bai. Badakit..... Badakitela bale? Ez dago prest! Ez dizut ezer erakutsiko bukatu arte. Bale?

Amaiak leihotik begiratzten du. Gelatik irten eta behera jaisten hasten da. Jaisten hasi orduko bere gurasoak diskutitzen entzuten du. Eskaileran esertzen da elkarrizketa entzuten.

TOMAS OFF

Zuk sartu dizkiozu txorakeria guzti horiek buruan. Zuk! Hainbeste estudio eta tontakeria.

IXABEL OFF

Aukera bat eduki zezaten borroka egin det. Besterik ez. Orain ezin dezu dena pikutara bidali.

TOMAS OFF

Zer gara ba, eurak baino gutxiago ala? Baserriko lana zer da ba inportantzia gutxiagokoa ala?

IXABEL OFF

¡Isilik. Segi baratzera, de repente!

Amaiak eskaileran jarraitzen du.

65 PISTA. KANPOA. EGUNA.

Amaiaren furgoneta pistatik behera dijoa. Sute bat egon dela dio irratiak.

66 ERRETAKO BASOA. KANPOA. EGUNA.

Amaia erretako basora iristen da. Furgoneta bi aldeetan erreta dauden zuhaitzen artetik dijoa. Txoko batean aparkatu, kamara hartu eta basoan sartzen da. Argazkiak egiten ditu.

Aurpegia beltzez pintatua bere buruari argazkiak egiten bukatzen du.

67 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Hiru arbola pintatuetatik pasatzen da kamera. Beltzez pintatutako zuhaitzean bukatzen da mugimendua. Pantaila guztia kolore beltzak betetzen duelarik.

BELTZETIK

68 BASERRIA. KANPOA. EGUNA.

Lagun zaunka ari da urduri. Tomas inguratu, lepotik heldu eta lepoan duen korrea askatzen dio. Pozik dijoa Lagun korrika. Ondoren, korrea Txakurkumeari lotzen dio lepoan eta katera lotzen du. Txakurkumea ez da ain gustora geratzen.

Tomasek trastelekuan sartu, eskupeta zaharra hartu eta bi kartutxo sartzen dizkio. Eskupeta bizkarrea hartu eta baso aldera zuzentzen da. Bere inguruan pozik Lagun ari da korrika.

Amaia bere furgonetan baserrira iristen da. Amaiak katean txakurkumea lotuta dagoela ikusten du. Lagun ez da inondik inora agertzen. Amaia inguruetan begira hasten da.

AMAIA

Lagun!!!

Amaiak txistu egiten du. Inguruetara begira dago. Baserrira sartzen da. eskailerak igo eta gelara sartzen da. arropaz aldatzen hasten da. Leihotik begiratzen du.

Tomas basora iristen da. Eskopeta du bere bizkarrean. Lagun inguruan dabil pozik korrika.

Amaia korrika gelatik irteten da. Eskailerak arrapaladan jaisten ditu. Zaratekin harrituta sukaldeko atetik Ixabel ateratzen da. Amaia bere aurretik korrika pasatzen da.

Amaiak ez du bista basotik kentzen ibiltzen doan bitartean. Tomas geratu egiten da. Txakurra du bere aurrean. Tomasek eskopeta "Lagun"-engana zuzentzen du.

Amaia korrika dijoa.

AMAIA

Aitaaaaa!!!

Tiro bat entzuten da. Amaiak geratu egiten da.

AMAIA

Aitaaaaa!!!!

Tomasek atzera begiratzen du. Amaia berarengana datorrela ikusten du. Eskopeta utzi eta aitzurra hartzen du. Zuloa egiten hasten da.

Amaia bere ondora iristen da. Lagunen ondoan belaunikatzen da. Amaiak arnasa hartzen du.

Tomasek zuloa egiten jarraitzen du.

Amaiak aita begiratzen du. Amorruarekin.

Amaiak Lagunen gorpua laztantzen du.

Tomas bere alaba begira geratzen da. Aurpegian emozioa nabari zaio Tomasi. Emozio estu bat.

Tomas aitzurrarekin zuloa egiten jarraitzen du.

69 AMAIAREN GELA. BARRUA. GAUA.

Amaiaren gela kaos bat da. Orain arte nahiko txukun ikusi degun mahaia trastes bete dago. Zirriborroak, argazki imprimatuak, textoak... Amaia gelan bueltak ematen ari da. Azkenean Ohean etzaten da eta sabaira begira geratzen da. Txakur txikiaren zaunkak entzuten ditugu.

AMAIAREN GELA. BARRUA. EGUNSENTIA.

Baserrian eguna argitzen du. Txakur txikia zaunka ari da.

71 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Sukaldean Ixabel kontserba potoak lapikotik ateratzen ari da. Ondoren egosi gabeak lapikora sartzen ditu. Amaiak bere ama begiratzen du.

AMAIA

Egunon.

IXABEL

Egunon bai!

Amaiak baso bat ur bete eta edaten du. Leihotik begira geratzen da.

IXABEL

Dena ondo?

Amaiak buruarekin baietz. Urduri dirudi.

72 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA

Amama bere besaulkian eserita dago. Amaiak suabe orrazten du. Ile zuri luzea poliki poliki luzatuz.

Amaiaren telefonoa entzuten dugu. Amaiak zein den begiratzen du, ez du hartzen.

Amaiak mototxa egiten bukatzen du.

73 BASERRIA/ BASOA. KANPOA. EGUNA.

Amaia kanpora joaten da. Txakurkumea agurtzen du. Katetik askatu eta baserri inguruan buelta bat ematen du. Sagarrondo zaharrez betetako sagastitik pasatzen da.

Baratza ondotik pasatzen da. Bertan Ixabel eta Tomas letxugak landatzen ari dira. Bertara zuzentzen da.

74 BARATZA. KANPOA. EGUNA.

Amaia eurengana zuzentzen da.

TOMAS

Zenbat aldiz esan behar dizut ez ateratzeko txakurra paseatzera? Zaunka egiten ikasi behar du, ez paseatzen.

Amaiak kaxatan dauden letxuga landareei begira geratzen da.

AMAIA

Zergatik zaude denbora guztian ni izorratzen? eh aita? Zergatik?

TOMAS

Txakurra gaizki erakusten ari zarelako. Horregatik!

AMAIA

Eta zuk? Zergatik ekarri dituzu berriro ere hainbeste letxuga?

TOMAS

Lau letxuga landatu o lau "ciento".... lana igual.

AMAIA

Ez esan tontakeriarik. Aita, hau ez da jolas bat.

Ixabel oso urduri dago.

AMAIA

Ez al zarete konturatzen bakarrik geratu zaretela? Bat letxugak landatzen eta bestea tomatea potetan sartzen.

IXABEL

Mesedez Amaia. Egon zaitez isilik.

AMAIA

Isilik? Zu bezala isilik ezta? Bizi guztia daramazu isilik. Berak esaten duena egiten. Bizi guztia lanean gauzak bere lekuan jartzen ez dituzulako. Berak egiten al dizu zuri kasu?

IXABEL

Nahikoa degu!!!

TOMAS

Gaiztoa zera...

AMAIA

Zer esan dezu?

TOMAS

Gaiztoa zarela.

Amaia zuzenean trastelekura dioa. Beste biak begira ditu. trastelekutik motozerrarekin ateratzen da. Tomas bertara inguratzen da.

Amaia sagastira dioa. Tomas bere aurrean ipintzen da.

TOMAS

Zer egin behar duzu?

AMAIA

Beldurra ematen dizut ezta?

TOMAS

Gauzak ondo egitea nahi dut, besterik ez!

Euren artean begiratzen dira.

TOMAS

Zer egin behar duzu?

Amaiak aita paretik kendu eta aurrera jarraitzen du.

TOMAS
Amaia!!! Amaia!!!!

Amaia, motozerra eskuan duela, sagarrondo zahar batengana inguratzen da.

Tomas begira du sagastiaren goialdean. Haserre dago. Kolpe bat ematen dio ondoan duen balde zahar bati.

Amaiak motozerra pizten du. Tomas urrutirago begira dago.

Sagarrondo bat mozten hasten da. Tomasek ez du sinesten ikusten ari dena. Amaiak sagarrondoa mozten jarraitzen du. Tomasek ezin du gehiago. Sutan ipintzen da haserre.

TOMAS
Amaia!!!!

Amaiarengana doa zuzenean. motozerra eskuetatik kentzen dio bortizki. Amaia txundituta dago bortizkeriarekin. Tomas badoa. Amaia aitari begira geratzen da.

Tomas zuzen dijoa. Amaia atzetik.

Tomas ez da baserrian geratzen, familiaren zuhaitzak dauden basora dijoa zuzenean. Amaia du atzetik.

Ixabelek baratzean jarraitzen du. Tomas motozerrarekin ikusten du. Amaia Tomasen atzetik ere ikusten du.

IXABEL
Tomas!!!

Ixabel ere bien atzetik joaten hasten da.

75 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Tomas beltzez margotutako arbolaren aurrean gelditzen da. Motozerra pizten du.

Amaia bat-batean geratu egiten da.

Tomas "Amaiaren" arbola mozten hasten da.

Amaiak ezin du sinetsi. Harrituta eta oso seria begira dago.

Ixabel korrika hasten da.

IXABEL
Tomas!

Isabelek Amaia ondotik pasa du. Honek bere aita begira jarraitzen du. Haserre. Amaia korrika hasten da.

Tomasek arbola mozten jarraitzen du. Ixabel iritsi da Tomasengana, inguratu eta motozerra kentzen saiatzen da. Tomasek mozten jarraitzen du.

IXABEL

Tomas... Mesedez!!!

Amaia korrika metro gutxitara dator.

Tomasek emazteari bultza egin eta motozerratik aldentzen du.

AMAIA

Aita!!

Tomasek motozerra bi eskuekin jaso eta Amaia dagoen ingurura botatzen du. Amaiaren burutik gertu pasatzen da eta atzean duen zuhaitz baten enborrean geratzen da sartuta.

Tomasek zuhaitzari bultzada txiki bat ematen dio eskuarekin. Zuhaitza badoa lurrera poliki poliki.

Tomas badoa.

Amaia bere amarengana doa korrika. Besarkada bat ematen dira.

Motozerra zuhaitzaren enborrean geratu da zintzilik. Motorra oraindik martxan dago. kamera motozerrarengana inguratzen da. Motorra itzali egiten da. Isiltasuna.

76 UKUILUA. BARRUA. GAUA.

Tomas ukuiluko aulkian eserita dago. Ardiak ditu atzean. Oso serio dago.

77 AMAMAREN GELA. BARRUA. GAUA.

Amama lo. Ixabel ondoko ohean sabaira begira.

78 AMAIAREN GELA. BARRUA. GAUA.

Amaia, begiak zabalik, sabaira begira dago. Jaiki egiten da. leihotik begiratzen du.

79 BASOA. KANPOA. EGUNSENTIA.

Behelainoak ingurua hartuta dauka.

Amaia Tomasek botatako zuhaitza grabatzen ari da. Oraindik zintzilik dagoen motozerrari ere plano bat egiten dio.

Ixabel sukaldeko leihotik begira dago.

80 TRASTELEKUA. BARRUA. EGUNA.

Amaia pinturen txokoan sartzen da. Pintura poto ezberdinak zabaltzen ditu. Makila batekin kolore ezberdinetako pinturei bueltak ematen dizkie. Batzuei berriro tapa ipintzen die. Kolore ezberdinetako 7 poto separatzen ditu eta poto guztiak elkarrekin ipintzen ditu. Zintarekin bueltak ematen dizkie potoei, denak elkarrekin pegatuak geratu arte. Zintarekin heldulekuak ere batu egiten ditu. Esku batekin poto guztiak hartzen ditu, bestearekin brotxa handi bat hartu eta irten egiten da. Basora zuzentzen da.

81 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Amaia Tomasek botatako zuhaitzera zuzentzen da. Oraindik heze dagoen arbola ipurdia gorritz margotzen du. Pintura dexente botatzen dio eta aldeetatik pintura txorrotak behera dijoaz. Moztutako beste aldea ere gorritz pintatzen du.

Lurrean zerraldo dagoen arbola kolore ezberdinetako pintura marrak egiten dizkio. Poliki poliki, sentituz, gozatuz.

Motozerra zintzilik jarraitzen duen arbolara inguratzen da. Enborrean sartuta dagoen zerra begiratzen du. Arbolaren hosto handi bat hartu eta tutu bat egiten du. Tutuaz baliatuz zerra sartuta dagoen zuloa pintura gorritz betetzen du. Zuhaitz hau ez du pintatzen.

Ondoko zuhaitzera inguratu eta Kolore ezberdinetako marra ezberdinak margotzen dizkio, tartean gorria, beltza eta zuria. Ondoko zuhaitzari berdin, kolore ezberdinetako marrak margotzen dizkio.

Musika entzuten hasten gara. Amaiak basoa margotzen jarraitzen du.

Kamera mugitzen hasten da eta baso osoa margotua ikusten dugu.

Ia ihartuta dagoen haitz zaharra beltzez pintatzen ari da Amaia. Bertan bukatzen da mugimendua.

Amaiak aurpegia eta besoak beltzez pintatuak ditu. Amaia baserrira zuzentzen da. Jarraitu egingo diogu.

82 KOMUNA. BARRUA. EGUNA.

Pintura ezberdinak daramatza urak.

Amaiak aurpegia garbitzen du dutxan.

83 AMAIAREN GELA. BARRUA. EGUNA

Amaia maleta prestatzen ari da. Ixabel iristen da. Atea jotzen du.

IXABEL

Bazoaz?

AMAIA

Nagoren etxera noa.

84 BASERRIA. KANPOA. EGUNA.

Txakurkumea zaunakaka ari da.

Sukaldera sartu eta Amamari besarkada estu bat ematen dio. Kanpora irten eta ama besarkatzen du. Furgonetara igo eta badoa. Ixabel eskua jasota geratzen da atarian.

Tomas, baso margotua atzean duelarik, Amaiaren kotxea baserritik nola aldentzen den begira dago.

Tomas eta Ixabel elkarri begiratzen dira. Begirada gogor bat. Ixabelek haserre dirudi.

Ixabel etxera sartzen da.

Tomas arbolara moztutako arbolara zuzentzen da. Motozerra enborretik

ateratzen saiatzen da. Segituan libratzen da. Bi eskuekin ateratzen saiatzen da baina ezin du.

Motozerrak utzi duen zulotik kolore gorrika haritxo bat ateratzen da. Odola balitz bezala. Tomasek harrituta begiratzen du.

85 SUKALDEA/UKUILUA. BARRUA. EGUNA

Ixabel sukaldean sartzen da. Haserre dirudi. Amama Ixabeli begira dago, adi adi. Sekula baino argiago dirudi amamak.

Tomas sukaldean sartzen da. Ixabelek serio begiratzen dio.

IXABEL

Zer? zertara zatoz orain hona? eh!!! Ez duzu errespeturik!!! Ez duzu inor errespetatzen, ez zure semeak, ez ni... Zure buruan bakarrik pentsatzen duzu.

Tomas isilik. Sukaldetik irteten da. Ixabel atzetik du. Ukuiluan sartzen dira.

IXABEL

Konturatzen zara zer lortu duzun? Eh? Konturatzen al zara?

Tomas isilik. Poto batean pentsua prestatzen hasten da.

IXABEL

Bakarrik geratu gera, bakarrik!!!

Tomas ardiei pentsua banatzen hasten da.

TOMAS

Zer utzi behar nion Sagarrondo guztiak mozten ala?

IXABEL

Sagarrondo horiek orain dela hogeitun urte moztuta egon behar ziren. Benetan esaten dizute eh! Amaiarekin konpontzen ez bazara, ni kalera noa bizitzera.

Tomas haserretu egiten da.

TOMAS

Kalera zu ere?

Haserretu egiten da Tomas. Pentsu potoa hormara botatzen du. Ardiak izutu egiten dira.

TOMAS

Mekauen dioos!!!

IXABEL

Itsututa zaude baserri zahar honekin, barazkiekin, ardi madarikatu horiekin ta ez dakizu zer den inportantea!!!

Tomas isilik.

IXABEL

Ardiak ni baino gehiago maite dituzula ematen du eta!

Ixabel badoa. Tomas sutan dago.

Tomasek sega hartzen du. Sega jaso eta ihes egitea lortzen ez duten ardiak akabatu egiten ditu.

Ixabelek zaratak entzun eta ukuilura zuzentzen da.

Tomasek segari kristoren kolpeak eman eta txikitu egiten du. Tomas kanpora irteten da.

Ixabel ukuilura sartzen da. Ate ondoan geratzen da. Ardiak erdi hilak ikusten ditu.

86 UKUILUA. BARRUA. EGUNA.

Kamera baserritik mugitzen hasten da. Segaren burdina zeharo apurtua lurrean jarraitzen du.

Odola ukuiluko lurrean.

Ardi hilak lurrean zerraldo.

87 TRASTELEKUA. BARRUA. EGUNA.

Pintura poto hutsak trastelekuko lurrean jarraitzen dute.

88 GAIZKAREN GELA. BARRUA. EGUNA.

Gaizkaren gela hutsa ikusten dugu.

89 AMAIAREN GELA. BARRUA. EGUNA.

Amaiaren gela hutsa ikusten dugu.

90 BARATZA. KANPOA. EGUNA.

Baratzean ez dago inor. Tomate landaretan tomate helduak zintzilik daude.

91 SARRERA. BARRUA. EGUNA.

Etxeko telefonoa deika ari da. Inork ez du erantzuten.

92 SAGASTIA. KANPOA. EGUNA.

Sagarrak zelaian daude botata.

93 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Tomasek karretila batean hildako ardi bat dakar eta zulora botatzen ditu.

94 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Sukaldeko argazki zaharrak bertan jarraitzen dute.

Ekonomikako sua itzalita dago.

Sukaldeko izkina batean Amama dago bere aulkian eserita. Lo.

95 BASERRIA. KANPOA. EGUNA.

Laurent baserrira iristen da kotxez. Txakurrak zaunkaka ditu. Kotxetik irtetzen da. Inor ez da ateratzen. Sarrerako atera inguratzen da. Atea jotzen du. Ez dirudi inor dagoenik.

Kotxean montatzen da. Mugikorra hartu eta deitu egiten du.

96 TABERNA. BARRUA. EGUNA.

Amaia ardo beltz bat hartzen ari da. Barra gainean dagoen mugikorra dantzan hasten da. begiratzen du eta ez du erantzuten. Ardoari trago luze bat ematen dio.

97 BARATZA. KANPOA. EGUNA.

Tomasek tomate helduak, lekak eta letxugak mozten ditu. Garbitu eta kaxatan prestatzen ditu.

98 GARAJEA. KANPOA. EGUNA.

Garajea barazki eta frutaz beteta dago dena. Tomas kotxeko maletegia barazki eta fruta kaxaz betetzen ari da.

99 SEK ESPERIMENTALA. BARAZKIAK.

Kamera barazki ezberdinetatik pasatzen da. Sukaldea barazkiz betea dagoela ikusten bukatzen dugu. Bat batean Ixabel mugitzen da eta fruta eta barazki artean galdua dagoela konturatzen gara.

Ibiltzen hasten da, oinutsik, barazkiak zapalduz mahaira inguratzen da. Bertan dauden barazki guztiak lurrera botatzen ditu eskuarekin. Mahaia libre uzten du. Armairura inguratzen da. Bederatzi plater hartu eta mahaia ipintzen du. Ondoren edalontziak, kubiertoak... leihora inguratzen bukatzen du. Leihoko kristalak lausotuta daude.

100 FURGONETA. BARRUA. EGUNA.

Amaia furgoneta gidatzen begirada tristearekin dijoa. Irratian abesti berdina entzuten dugu.

Kamera Amaiaren begi beltzetatik oso gertu dago.

101 ERREPIDEA. KANPOA. EGUNA.

Amaiaren furgoneta baserrirako bidea hartzen den auzotik dijoa. Bere amaren kotxea atzeko kapota zabalik ikusten du. Bertara inguratzen da.

Bat-batean etxe batetik Tomas irteten dela konturatzen da. Azeleratu eta aurrera jarraitzen du.

102 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Tomas sartzen da. Leiho ondoan Ixabel dago, leihotik begira, joanda bezala. Tomas eskuak garbitzen hasten da. Tomasek mahaia begiratzen du. Bederatzirentzat dago jarrita.

Norbait dator bazkaltzera ala?

Ixabel zutitu eta sukaldetik kanpora dijoa. Tomasek harrituta begiratzen dio. Sutondora inguratu eta bertan dagoen lapikoari tapa ketzen dio. Ura irakiten besterik ez dago. Frigorifikora zuzentzen da. Ez dago gauza askorik. Ingurura begiratzen du gero. Tomas kanpora dijoa.

103 AMAIAREN PISUA. BARRUA, EGUNA.

Amaia bere gelan ordenagailu aurrean dago. Argazki ezberdinak beltzezko orbanekin zikintzen ari da digitalki. Kolpeka lan egiten ari da.

104 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Ardi batzuk sukaldean sartzen dira. Lurrean eta fregadera ondoan kaxa baten dauden barazkiak jaten dituzte.

105 TABERNA. BARRUA. EGUNA.

Amaia zerbeza bat hartzen ari da. Tabernan Laurent sartzen da. Zuzen dijoa berarengana. Amaia oso serio dago.

LAURENT

Zer Amaia?

Amaiak serio begiratzen dio.

LAURENT

Ez didazu telefonoa hartzen... Ez dakit ezer zutaz... Erakusketa bat dugu...Ez?

Amaiak aurrera begira jarraitzen du.

LAURENT

Amaia!!! Hostia!!!

Amaiak apurtuta dirudi.

AMAIA

Ez daukat bukatuta.

LAURENT

Aste bete geratzen da. Erakutsidazu daukazuna eta ondoren hartuko ditugu erabakiak. Bale?

AMAIA

Saiatuko naiz.

Amaiak gogor begiratzen dio Laurenti eta badoa.

106 DISKOTEKA. BARRUA. GAUA.

Amaia dena ematen ari da diskotekan. Dantza egiten haizegailu baten aurrean. Bere ile luze beltzaranak airean dantzan. Gazte bat inguratzen zaio eta berarekin oso estu dantza egiten jarraitzen du.

107 AMAIAREN PISUA. BARRUA. EGUNA.

Diskotekako gaztea lo dago Amaiaren ondoan. Ohea lurrean dago. Kamerak

lurrean botata dauden apurtutako argazki ezberdinak jarraitzen ditu. Argazki gehienetan kolore gorri, beltz eta zuriarekin asko jolasten da. Hauetako asko zuribeltzean dira eta argazkiko zerbait dago bakarrik gorritz: amama zuri beltzean eta ilea gorria duela, zimurrak gorritz... Argazkien artean ere bere aita bizkarra emanda agertzen den bat nabarmentzen da.

108 BASERRIA. KANPOA/BARRUA. EGUNA

Baserrira kotxe bat iristen ari da bidetik. Xabiren kotxea da. Familia guztiarekin dator.

109 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA

Xabi eta familia sukaldean sartzen dira. Dena barazkiz beteta ikusten dute. Tartean ixabel eta Amama.

XABI

Ondo zaude ama?

IXABEL

Bai, bai.

Ume txikia besotan hartzen du eta pixka bat lasaitu egiten da.

XABI

Aita non dago ba?

IXABEL

Ez dakit.

Xabi kezkatuta sukaldetik irteten da.

110 UKUILUA. BARRUA. EGUNA.

Xabik lurrean dauden odol orbanak ikusten ditu. Asaldata egiten da. Bertara inguratu eta benetan odola dela konprobatzen du. Ondoan sega apurtua topatzen du.

XABI

Aita!!!!

Xabi kanpora irteten da.

XABI

Aita!!!!

Basora begiratzen du eta zerbait arraroa sumatzen du. Sara inguratzen zaio. Begiradak bien artean. Xabi baso aldera zuzentzen da.

111 BASO PINTATUA. KANPOA. EGUNA.

Xabi baso pintatua begira dago. Harrituta geratzen da pinturarekin. Handik soro aldera begiratzen du. Soroan lanean aita ikusten du. Bertara zuzentzen da.

112 SOROA. KANPOA, EGUNA.

Aitarengana inguratzen da.

XABI

Zer aita?

Tomas isilik. Lanean jarraitzen du. Begirada nahiko galdua dauka.

XABI

Aita!

Tomasek bizkarra ematen dio. Xabi bere parean ipintzen da.

XABI

Aita! Esango didazu zer gertatzen den?

TOMAS

Dena pikutara joan da.

XABI

Baina konpondu daiteke. Ezta?

Aitak ez dio kasurik egiten.

XABI(GOGOR)

Aita. Konpondu daiteke ala ez?

TOMAS

Ba noski konpondu daitekeela.

XABI

Ba konpondu!

Xabik buelta eman eta baserrira zuzentzen da.

Baserrira bidean telefono mugikorra hartu, zenbaki bat markatu eta deitu egiten du.

XABI

Amaia...

113 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA

Sarak jada sukaldea txukunduta du. Eta kuzinatzen ari da. Xabi sartzen da. Bien artean begirada.

Ixabel txikiarekin jolasean ari da.

Xabi, Ixabel eta sarak isilean bazkaltzen dute. Denak isilean.

114 SUKALDEA/AMAMAREN GELA. KANPOA. EGUNA.

Familia badoa. Ixabel sukaldera sartzen da. Bederatzi plater hartu eta mahaia ipintzen hasten da. Txukun txukun mahaia ipintzen bukatzen du. Atera egiten da.

Tomas sukaldean sartzen da. Eskuak garbitzen ditu. Amama begiratzen du. Sukaldea begiratzen du. Mahaia bederatzirentzat ipinita dagoela konturatzen da.

Kuzinatzen hasten da. Barazki ezberdinak kazuela batean sartu eta sutan ipintzen du. Tortilla bat ere prestatzen du. Tomasek mahaian hiru plater eta kubierto uzten ditu bakarrik.

Isabel bilatzen hasten da. Amamaren gelako ohean topatzen du.

TOMAS
Afarria prest dago.

IXABEL
Ez daukat goserik.

Ixabelek sabaira begiratzen du. Tomas begira geratzen zaio.

Tomas eta amama afaltzen daude. Ixabelen platera bertan dago, ixilean.

115 PISUA. BARRUA. EGUNA.

Amaia bere gelan dago. Koltxoian etzanda. Telefonoaren bibradorea martxan ipini da. Amaiak arnasa hartu eta telefonoari erntzuten dio.

AMAIA
Laurent... Barkatu... Baina ez dago prest.

Mobila itzali egiten du.

116 AMAMAREN GELA. BARRUA. GAUA.

Ixabelek Amamari ohean sartzen laguntzen dio. Ondoren ondoko oheari izarak ipintzen dizkio. Argia itzaltzen du.

117 UKUILUA. BARRUA. GAUA.

Tomas ukuiluko aulkian lo geratu da.

118 SUKALDEA.KANPOA. EGUNA.

Ixabel Amama orrazten ari da. Amama urduri dago. Ixabelek ez dio ulertzen zer nahi duen. Amama zutitu eta kanpora doa. Ixabelek atzetik jarraitzen dio.

IXABEL
Nora zoaz?

Amama aurrera. Ixabel atzetik.

119 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Ixabel eta Amama basotik paseatzen ari dira. Amama txundituta dago baso pintatuarekin.

120 BARATZA.KANPOA.EGUNA.

Tomas lekak batzen ari den bitartean baso margotura begira dago.

Lanean jarraitzen du.

121 GARAJEA. BARRUA. EGUNA.

Kotxea prestatzen du Tomasek. Barazkiak, frutak eta denetik. Kotxeko atzeko atea ixten du.

Ixabel eta Amama basotik datoz. Tomas inguratzen zaie.

TOMAS

Kotxea prest duzu. Zer? Kalera joaten hasi beharko zara ez?

IXABEL

Ez.

Tomas harrituta dago. Ixabel oso serio.

IXABEL

Nahi baduzu joan zaitez zu. Ni ez noa...
Sekula gehiago.

Ixabelek oso lehor hitz egiten du. Tomasek, harrituta, alde egiten du.

122 SAGASTIA. KANPOA. EGUNA.

Tomas traktorera zuzentzen da. Saskiez betetzen du atzeko remolkea. Arrankatu eta sagastira zuzentzen da.

Saskiak sagarrez betetzen ditu. Lau tokitan daude sagar saskiak sagarrez beteta. Traktorea martxan ipini eta saskiak dauden tokira inguratzen du. Traktorea gelditu, eskuko freno a ipini eta kontu handiz aurreko erruberari egurrezko tako bat ipintzen dio, azkar azkar, eskuko frenoak ez bait du bere lana ondo egiten. Sagarrez betetako lehen saski multzoa erremolkerara jasotzen du.

Motorra arrankatu, takoa hartu eta aurrera dioa beste saski multzo batera zuzenduz. Aldapa izugarria da. Saskien ondoan kolokatzen du traktorea. Motorra gelditu, eskuko freno eman eta kontu handiz takoa ipintzen saiatzen da, baina ez du lortzen takoa ondo kolokatzera eta traktorea beheraka dioa. Tomasek traktorera salto egin eta lortzen du traktorea gelditzea.

Traktorea arrankatu eta berriro saskien ondora eramaten du traktorea. Takoa ere bertan dago lurrean.

Traktorearen motorra itzaltzen du. Eskuko freno a tope sartzen du. Traktoretik kontu handiz jeitsi eta takoa hartzeko eskua luzatzen du. Traktorea beste eskuarekin helduta duela. Traktorea badoa beheraka berriz ere. Berriro traktorean igotzen saiatzen da baina irrist egin eta lurrera dioa. Belaunean min hartzen du. Traktorea beheraka gero eta abiada handiagoan. Zutitu eta traktorearen atzetik dioa. Lortzen du traktorea geratzea. Min handia du belaunean.

TOMAS

Diossss!!!

Arnasa hartzen du. Traktoreari eskuko freno kendu eta traktore ondotik aldentzen da.

Traktorea amildegian behera dioa. Sagarrez betetako saskiak lurrean bukatzen dute. Azkenean zuhaitz batek geratzen du traktorea.

Tomas lurrean botata traktorea begira geratzen da. Euria hasten da.

123 BASERRIA. KANPOA. EGUNA.

Euria ari du baserrian. Euria beste ezer ez da mugitzen baserrian.

Sagarrak lurrean botata euripean, ardiak sagarrak jaten.

Traktorea bustitzen.

Baserria euripean.

Ixabel sukaldeko leihotik begira.

Tomas ukuiluko aulkian eserita euriari begira.

124 TOMASEN AMETSA. BASERRITIK ALDE EGITEN.

Euriak a tope jarraitzen du. Baserriaren dekadentzia erakusten duten irudi pilo bat ikusten ditugu: Itxitura jausiak, ate zaharkituak, larrak alde guztietan, hezurretan dauden ardi triste batzuk... dena euripean. Tomas baserri aurrean argazki baterako tente. Bere atzean dagoen baserria zeharo jausita dago. Ez teilaturik, ez horma bat zutik, dena suntsituta. Inguruan hezurretan dauden ardi tristeak. Bere aurrean Amaia argazki kamara zahar batekin argazkia ateratzeko prest. Kamerarekin ardiei jarraituz Tomas maleta batekin baserritik alde egiten deskubritzen dugu.

Baserriko bidetik behera dijoa. Aurpegitik hasi eta behera dijoa kamera. Erruberadun maletatxoarekin geratzen gara. Maletatxoaren erruberak baserritik aldentzen ikusten ditugu.

125 GELA. BARRUA. EGUNA.

Tomas ametsetik esnatzen da. Oso urduri. Ohean bere emaztearen falta sumatzen du. Belaunean mina sumatzen du.

126 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Beltzez pintatutako zuhaitzetik pasatzen da kamara. Zuriz eta Kolorez pintatutako zuhaitzetatik ere. Kolore ezberdinez pintatutako arboletan bukatzen da mugimendua.

KOLOREETATIK

127 ATARIA. KANPOA. EGUNA.

Tomas kanpora doa. Basora begiratzen du. Trastelekura zuzentzen da.

128 TRASTELEKUA. BARRUA. EGUNA.

Tomas trastelekura inguratu eta kable zahar bat duen polea bat hartzen du.

Sagastirako bidea hartzen du.

129 SAGASTIA. KANPOA. EGUNA.

Polea sagarrondo batera lotzen du. Traktorea lotu eta sokari tiraka hasten da Tomas. Traktorea poliki poliki mugitzen hasten da.

Tomas traktorearengana inguratzen da. Apurtuta dituen pieza batzuk konpontzen dizkio.

Polea askatu eta traktore gainera botatzen du. Ondoren traktorea arrankatzen saiatzen da.

Martxan ipintzea lortzen du. Badoa aldapan gora baserrirantz.

Apurtutako saskiak bertan geratzen dira. Zelaia sagarrez betea dago.

Traktorea baserrira inguratzen ari da aldapatik gora.

130 TAILER ZAHARRA.BARRUA. EGUNA

Tailerrean egurra lantzeko egurrezko lanabesak hautsak hartuta daude. Tailerreko ate korredera zabaltzen da. Tomas da. Herreminta ezberdinak hartzen ditu. Egurrezko erraminta kaxa batean sartzen ditu denak. aizkora bat ere hartzen du.

131 ATARIA. KANPOA. EGUNA.

Tomasen herrena nabarmena da, zorrozterrira inguratzen denean. Herreminta guztiak zorrozten hasten da atari aurrean duen zorroztarrian.

Traktorean kolokatzen ditu denak.

132 SUKALDEA.BARRUA. EGUNA

Ixabel Amama orrazten ari da. Sukaldea oso desordenatua dago: barazkiak, kontserba potoak, kazuelak...

Tomas etxe paretik traktorearekin pasatzen da. Ixabel leihotik begira geratzen da. Traktorea basorantz zuzentzen ikusten du.

133 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Moztutako arbolaren enborrak motozerrarekin mozten ditu. Aizkora eta kuña batzuekin enborrak erditik banatzen ditu. Beste lanabes batekin azala kentzen die. aizkorarekin forma ematen die. Habe lauki pilo bat sortzen ditu. Habe guztiak traktorean kargatzen ditu.

Traktorea martxan ipintzen du.

134 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA

Ixabel leihora begira dagoela ikusten dugu.

Ixabel sukaldea txukuntzen hasten da.

135 TAILERRA. BARRUA. EGUNA.

Tomas tailerrean egurra lantzen dabil. Eskuz. Habeak gero eta landuagoak daude. Pieza ezberdin pilo bat prestatzen ditu. Bukatzeko lixa pasatzen du. Eskuarekin gora eta behera. Presa gabe. Sentitzen.

Ondoren pintura ezberdinekin kolore ezberdinetako marra ederrak margotzen ditu.

136 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA

Sukaldea txukun txukun ikusten dugu. Ixabelek leihotik begiratzen du.

137 TAILERRA. BARRUA. KANPOA.

Tomasek prestatutako pieza guztiak traktorean kolokatzen ditu.

138 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Ixabel senarrari begira dago.

139 ATARIA. KANPOA. EGUNA

Tomas traktorera igo, arrankatu eta bidetik behera dijoa.

140 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Ixabel sukaldatzen hasten da.

141 ZEMENTUZKO BIDEA. KANPOA. EGUNA.

Tomas zementuzkobidetik dijoa.

142 HERRIA. KANPOA. EGUNA.

Traktorea herriko kale batetik dijoa.

143 BLOKE BERRIEN ETXEAK. KANPOA. EGUNA.

Traktorea etxe berrien bloke batzuetara iristen da. Traktorea aparkatzen du bi kotxeren erdian.

Atarira inguratu eta tinbrea jotzen du. Emakume ahots batek erantzuten du interfonoaren bestaldean.

NAGORE OFF

Bai?

TOMAS

Amaia!

NAGORE OFF

Amaia ez dago. Laster etorriko da.

TOMAS

Tomas naiz, bere aita. Pasa al naiteke? Opari bat dakart beretzat.

Atea zabaltzeko txirriña entzuten da. Atea zabaldu eta blokeatu egiten du. Habeak igogailuraino eramaten hasten da.

144 AMAIAREN ETXEA. BARRUA. EGUNA.

Amaiaren etxean tinbrea entzuten da. Nagore, Amaiaren laguna, atera inguratu eta zabaldu egiten du.

Tomas da.

TOMAS

Kaixo. Bere gela erakutsiko al didazu?

Nagore harritu egiten da. Baina gelarako bidea hartzen du. Atea zabalik dago. Koltxoi bat dago lurrean botata, probisional xamar prestatutako gela ematen du.

Ezer esan gabe Tomas sarrerako atera zuzentzen da eta habe guztiak gelara eramaten hasten da. Nagore harrituta dago. Habeak sartzen laguntzen dio.

Tomasek instant batean ohe eder bat muntatzen du. Nagoreek orain dena ulertzen du. Tomasek erremintak hartu eta aterantz zuzentzen da.

NAGORE OFF

Zer? Ez al diozu itxoin behar? Oraintxe iristekoa da.

TOMAS

Ez, ez! Banoa!!

Tomas badoa. Nagore atean geratzen da begira.

145 PORTALA. KANPOA. EGUNA.

Amaia bere portalera iristean aitaren traktorea ikusten du portal aurrean. Paralizatu egiten da. Pixkat aldendu eta kotxe artean portala begira geratzen da.

Portaletik aita irtetzen da. Traktorera zuzentzen da. Amaia begira du. Aita badoa.

Amaia portalean sartzen da.

146 HERRIKO KALEA. KANPOA. EGUNA.

Traktorean herriko kaleetatik dijoa.

147 AMAIAREN PISUA. BARRUA. EGUNA.

Amaia etxean sartzen da. Gelara zuzentzen da. Sartu orduko ohearekin egiten du topo. Harrituta geratzen da. Aitaren argazkia begiratzen du. Hunkitu egiten da.

148 BASERRIA. KANPOA. EGUNA.

Ixabel eta Amama atariko bankoan daude eserita. Ixabel baserriko bidera begira dago.

Ez da ezer ikusten baina urrunean traktorearen zarata entzuten hasten gara.

Ixabel eta Amama bidera begira geratzen dira.

Bidetik gora traktorea agertzen da.

Tomas baserrira iristen da. Traktorea geratu eta Ixabelengana inguratzen da. Bere ondoan esertzen da. isilean geratzen dira hirurak bankoan eserita.

Tomasek eskua hartzen dio Ixabeli. Hirurak bidea begira geratzen dira. Horrela geratzen dira denboratxo bat isilean hirurak.

bat-batean, kotxe baten zarata entzuten hasten dira.

Ixabel piztu egiten da. Tomas hotz.

Amaiaren furgoneta ikusten dute eurengana datorrela. Ixabel izugarri pozten da.

Amaiak atarian aparkatzen du. Ixabel berarengana dijoa. Ixabelek bi

muxu ematen dizkio. Amaiak atarira begiratzen du. Tomas serio dago. Tomasengana inguratzen da. Amaia oso hunkituta dago.

AMAIA

Gaur, bizitzan lehenengo aldiz, aita bat nuela sentitu det. Eta horrek asko poztu nau.

Isabel hunkituta dago.

AMAIA

Aita, niri zerbait esateko badaukazu, edo hitzegiten didazu edo oheak eraikitzen dizkidazu, berdin zait zer, baina mesedez entera nadila. Bale?

Ixabelek bere gizonari begiratzen dio. Ixabel tentsioan dago.

TOMAS

Nire aitak sekula ez zidan hitz bat bera ere esan. Ez zidan ezer esplikatu. Ezer galdetu gabe, bere ondoan, lanean, eskuen bidez jaso nuen dakidan guztia.

Amaiak eskua zabaldu eta bere aitak eskuak erakustera gonbidatzen du. Bi eskuak aurrez aurre erakusten dituzte. Ia doblea da aitaren esku zaildua.

149 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Tomas eta Amaia basora bidea dijoaz. Tomas aurretik dijoa, aitzur bat bizkarrean duelarik. Amaia atzetik bere aita begira.

AMAIA OFF

Beste mundu batean bizi da. Bere munduan ez dago hitz egin beharrik. Keinu bat egitea nahikoa du zerbait adierazteko. Sekula ez dit aholku bat eman, sekula haserre egin. Beti isilik. Sekula ez zidan maite zaitut esan.

Tomasek bere alabari begiratzen dio. Ibiltzen jarraitzen dute. Baso pintatutik pasatzen dira.

AMAIA OFF

Ni eta nire aita ez gara mundu berean bizi. Bi mundu horren arteko zubia egurrezko ohe handi bat da. Nola ulertuko gara ba? Nola ezagutu bere mundua? Isildu egin behar naizela uste dut. Isilean agian zerbait entzuten hasiko naiz.

Amaiak bere aitaren buruari begiratzeari utzi eta aitaren hanketara begiratzen du. Aitak herren egiten du nabarmen.

AMAIA

Herrenka ari zara aita?

TOMAS

Belauna pixka bat izorratua daukat.

AMAIA

Aita, goazen lan gutxiago egitera, Bale?

Zuhaitz landara txikiz betetako aldapa batean sartzen dira.

150 HARIZTIA. KANPOA. EGUNA.

Tomas landara eder baten aurrean geratzen da, aitzurra jaisten du. Inguruan beste landara batzuk daude. Atzean Amaia duela gogoratzen du.

TOMAS

Zein gustatzen zaizu?

Amaia landaren artean mugitzen hasten da. Tomas begira du. Buelta oso bat ematen du. Landara txiki bat aukeratzen du.

AMAIA

Hau!

Tomas harritu egiten da.

TOMAS

Hori?

AMAIA

Bai.

TOMAS

Inguruko beste edozein askoz landara hobea da.

AMAIA

Baina hori ere arbola bat da ezta?

TOMAS

Bai arbola da. Baina ez al duzu ikusten kirtena okerra duela?

AMAIA

Ta?

Tomas landara aurrean kolokatu eta aitzurrarekin sustraia lur eta guzti ateratzen hasten da.

Tomasek landara ateratzen du, zuztarra lur dexentekin duelarik. Amaiari ematen dio.

Aita herrenka badoa. Amaia begira geratzen zaio.

151 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Haitz landara, lur eta guzti, Tomasek moztu zuen arbolaren ondoan landatzen dute. Amaia ari da lanean. Ixabel eta amana ere bertan dira. Tomas moztutako enborrean eserita dago mindutako hanka luzatua duelarik.

Amama ibiltzen hasten da. Pintatutako basoan sartzen da. Denak bera begira geratzen dira. Amaiak jarraitzen dio. Amamak zoriontsua dirudi.

Tomasek bere belauna ukitzen du. Amaia begira geratzen da. Berarengana inguratzen da.

AMAIA

Oso herrena zaude aita. Erakutsi belaun hori.

TOMAS

Ez da hainbesterako.

Amaiak serio hartzen du.

AMAIA

Erakusteko belauna! Joder!

Tomasek prakak jasotzen ditu. Belauna oso handitua dauka. Amaiak behatzak sartzen dizkio nahiko fuerte. Tomasek segituan erreakzionatzen du.

TÓMAS

Egon geldi! ¡hostia!

Amaiak hatzak ateratzen ditu.

AMAIA

Kolperen bat hartu dezu ala?

Tomasek ez dio kasurik egiten.

AMAIA

Honek ez du batere itxura onik. Urgentzietara joan behar gara.

TOMAS

Ni sekula ez naiz urgentzietara joan.

Amaiak eskuak sartzen dizkio berriro.

TOMAS

¡¡¡Ahhhhhh!!!

152 OSPITALEA. BARRUA. EGUNA.

Amaiak tomas erruberazko aulki batean darama.

Itxaron gelara iristen dira. Harreran ez dago inor. Amaiak aulkiari freno ipini eta ondoko bankuan esertzen da. Biak isilik geratzen dira.

153 OSPITALEA. BARRUA. EGUNA.

Ate bat zabaltzen da. Amaiak begiratzen du. Atetik Tomas bi muletak eskuan dituela erizain batek bultzatutako aulkian eserita agertzen da. Igeltsua ipini diote hankan.

Amaia bere aitarengana inguratzen da.

TOMAS

Goazen hemendik. Diossss!!!

Amaia igeltsua begiratzen dio.

AMAIA

Eskerrak ez zeneukala ezer.

Amaiak aulkitik heldu eta kanpora darama.

154 BARATZA. KANPOA. EGUNA.

Tomas aulki batean eserita dago. Igeltsua ipinia duen hanka balde baten gainean du ipinita. Kamara mugitzen hasten da.

XABI OFF

Egun bat zoriontsu izan nahi ba duzu mozkortu zaitez, aste bat zoriontsu izan nahi ba duzu egin bidaia bat...

Poliki poliki kamarak bizkarra emango dio Tomasi eta bere aurrean Amaia baratzean lanean daudela deskubritzen dugu.

XABI OFF

...Urtebete zoriontsu izan nahi ba duzu ezkondu zaitez..

Xabirengana iristen gera. Xabi izerditan blai dago. Xabik bere aita begiratzen du. Xabi eta Amaia elkarri begiratzen diote. Amaiak lana egiteari uzten dio.

XABI

....Baina bizi guztia zoriontsu izan nahi ba duzu landatu baratza bat... Eh aita!!!

TOMAS

Hiri indarra ahotik joaten zaik. Ahotik!

Xabik patata jorratzen jarraitzen du. Keinu egiten dio Amaiari. Amaia ere lanean hasten da.

Amaia eta Tomas porru landara artean belartxoak banaka banaka eskuarekin kentzen ikusten ditugu. Lasai lasai.

155 PISUA. BARRUA. GAUA.

Amaiak pisuko balkoiko loreak ureztatzen ditu orain. Dutzatu berria dirudi eta lo egiteko eroso jantzia.

Bere gelara zuzentzen da. Ordenagailua itzali eta aita operatutako ohean etzaten da. Pentsakor dago sabaira begira. Telefonoa hartu eta deitu egiten du.

156 TAILERRA. BARRUA. EGUNA.

Kamioi bat iristen da baserrira. Txatar-biltzailea da. edukiontzi bat uzten du trastelekuaren ondoan.

Familia guztia lanean ari da. Trastelekuko traste zahar guztiak ateratzen dituzte kanpora. Amaia, Ixabel, Sara, Xabi, Tomas eta umeak.

Xabi eta Tomas gordetzeko eta botatzeko trasteak sailkatzen ari dira. Tomasi kostatzen zaio gauzak edukiontzira botatzea. Gordetzeko pilan botatzen ditu herdoildutako tubo batzuk.

XABI

Hoiek seguru balio dutela?

TOMAS

Nik ez dut esan balio dutela, nik balio dezaketela esan dut. Orain ez dugu erabiliko baina hemendik bost hilabetetara igual... Bizitzak buelta asko ematen ditu xabi.

Xabik plagatzen den aulki zahar bat hartzen du.

XABI

Hau... seguru?

Tomas haserretu eta joan egiten da.

TOMAS

Bota dena nahi badezu!!!

Xabik edukiontzira botatzen du. Xabi aitaren atzetik doa.

XABI

Aita... Lasai aita. Ez dugu dena botako... Bale!

TOMAS

Bota dena! Bakea! Ez dut ezer jakin nahi. Egin ezazue nahi dezutena.

Tomas traste guztiak botatzen hasten da. Xabi gustura. Amaiak balio dute gauzak ikusten ditu. Xabi eta Tomas trastelekuko beste alde batera zuzentzen dira.

Amaiak edukiontzitik berogailu zahar bat jasotzen du.

Amaia ia hustua dagoen espazio begiratzen dago. Alde batera eta bestera. Traste gabe espazioak askoz handiagoa dirudi.

157 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Tomate haziak ohol batean ipintzen ditu Tomasek. Ondoan Amaia dago. Haziz betetako ohola leiho ondoan ipintzen du.

Sutondoan berriz mermelada egiten ari dira Sara, Ixabel eta umeak.

158 IKUILUA. BARRUA/KANPOA. EGUNA.

Tomas ardiei deika ari da. Amaiak soinua grabatzeko aparatu batekin aita grabatzen du. Xabi barrenean belar lehorra ipintzen die ardiei.

159 TAILERRA. BARRUA. EGUNA.

Amaia, Tomas eta Xabi tailer zaharrear lanean. Tailer zaharrear zeuden ohol eta burdinak erabiliz, paretak eta sabaia txukun txukun dekoratzen hasten dira.

TOMAS OFF

Ez duzue baserria ulertu.

Egurrezko iltzeekin ari da Tomas lan egiten. Eskuz egurra lantzeko erreminta bereziak erabiltzen ditu. Ondoan, Amaiak ere egurra lantzen du. Beti aitari begira. Isilean. Atzerago Xabi.

TOMAS OFF

Baserriak babesa ematen dizu. Jatekoa ematen dizu. Atsedena ematen dizu. Bizitza ulertzen laguntzen dizu. Eta batez ere gure aurrekoekin eta ondorengoekin batzen gaituena da. Baserria gu gara.

Tomasen eskuak Amaiaren eskuarekin erlazionatzen dira habe bat lixatzerako orduan. Xabi atzerago lanean ari da.

TOMAS OFF

Baserriarekin batera bizitzeko era bat jasotzen duzu. Bakoitzaren erantzukizuna da, baserri hori hobetu eta hurrengoei ematea. Nik kale egin dut lan horretan.

Amaiak berogailu zaharra tailerraren erdian kolokatzen du.

TOMAS OFF

Baserria pikutara dijoa jada ez dugulako hizkuntza berdina hitz egiten. "Nire" baserria deitzen diozue..."Nire" amama... "Nire" bizitza.

Amaia dekoratzeko erabili dituzten egur eta burdinak likido ezberdinekin landu eta benetan ateratzen dio zaharraren itxura.

TOMAS OFF

Hau ez da sekula "nire" baserria izan. Hau "gure" baserria izan da, gure amama beti gure amama izan den bezala. Jada ez dugu hizkuntza berdina hitz egiten.

Bukatzeko Xabi eta Amaiak pintatu egiten dute espazio guztia. Kolore ezberdinetan, ohearen koloreak gogoratzen dizkigu. Amaia pozik dago.

160 BARATZA. KANPOA. EGUNA.

Amaia Tomas grabatzen ari da. Hau herdoilduta dagoen aulkia zahar batean dago eserita.

TOMAS

¿Ba al dakizu nola esan nion berarekin ezkondu nahi nuela zure amari?

Amaiak esateko adierazten dio.

TOMAS

Ba gara edo ez gara?

Amaia gustura dago. Tomas ixilik geratzen da. Kamara aurrean ixilik kamarari begira.

161 AMAIAREN PISUA. BARRUA. EGUNA.

Amaia eta Xabik ohea gelatik ateratzen dute.

Eskailleretatik jaisten dute.

162 FURGONETA. BARRUA. EGUNA.

Xabi eta Amaiak ohea furgonetan kargatzen dute.

163 BASERRIA. KANPOA. EGUNA.

Amaiaren furgoneta baserrira iristen da.

164 AMAIAREN GELA. BARRUA. EGUNA.

Xabi eta Amaiak ohea Amaiaren gelan sartzen dute.

165 TAILERRA. BARRUA/KANPOA. EGUNA

Amaia eta ilobak aurrean duten traste zaharren pilari sua ematen ari dira. Suak indarra hartzen du.

Tomas eta Xabi suari begira daude. Tomasek suaren atzean duen basora zuzentzen du begirada. Xabi konturatzen da.

TOMAS

Zuk badakizu zergatik pintatu zuen basoa?

Xabik gogor begiratzen dio. Tomas adi adi erantzuna itxoiten geratzen da.

Isiltasun luze bat egiten da.

XABI

Zuk badakizu zer den, txikitatik, egunero egunero, alperra zarela entzutea? Merezi al du aita?

TOMAS

Gauza hauek beti egin dira horrela.

XABI

Badakizu zenbat indar behar den horri buelta emateko? Eh aita?

TOMAS

Ta nik zer nahi duzu esatea ba? Sentitzen dudala? Horrek ez du ezer konpontzen.

XABI

Laguntzen du aita. Asko laguntzen du.

Tomasek bota zuen arbolaren ipurdira begiratzen du.

TOMAS

Afaltzera joan beharko degu. Ez?

XABI

Aita, ba dakit sentitzen dezula. Esan. Mesedez.

Isiltasuna egiten da. Tomasi kostatzen zaio ahoa zabaltzea. Ezin du.

166 TAILERRA. BARRUA. GAUA.

Lehen tailerra zena espazio berri bihurtu da. Espazio diafanoak sukaldea, mahai handi bat eta egongela ditu.

Beste txoko batean Amaiak estudio montatu du. Papera ugari, koadroen markoak, inpresora handi bat, ordenagailuan lan egiteko txoko eder bat...

Bertan lanean ari da Amaia. Oso seguru ikusten dugu lanean.

167 KOMUNA. BARRUA. EGUNA.

Bainuontziko txorroko ura zabaltzen du Ixabelek. Trastelekura inguratu eta kaxa bat barazki eta frutaz betetzen du.

Ixabel bainatzen ari da barazki eta frutaz inguratua. Fruta koloretsuetan bukatzen dugu kamera mugimendua. Kamerak fruta eta barazki ezberdinetan bukatzen du.

168 BASERRIA. BARRUA/KANPOA. EGUNA.

Amama baserriko txoko ezberdinak begiratzen ari da. Amaiak atzetik jarraitzen dio. Amama ez da konturatzen Amaia atzetik duela.

169 ESTUDIOA. BARRUA. EGUNA.

Amaia ordenadore aurrean idazten ari da. Erakusketako proiektua idazten ari dela ikusten dugu.

Amaiak egindako lan asko tailerreko eskina batean ipini eta hurrunetik begiratzen ditu.

170 GALERIA. BARRUA. EGUNA.

Amaia galerian sartzen da. Zuzenean Laurent dagoen mahairaino dijoa. Honek ordenadoretik burua altxatzen du.

AMAIA

Sentitzen det.

Laurentek serio begiratzen dio.

171 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Arboletako margoetan hasten dugu mugimendua. Margotutako basoan ondoan dagoen silla batean Tomas eserita deskubritzen dugu. Barrenean behelainoa dago.

172 BASERRIA. KANPOA. EGUNA.

Kotxe bat baserrira iristen da. Amaiak harrera egiten dio. Laurent da. Amaiak estudiora sartzera gonbidatzen du. Bertan zintzilikatuak dauden argazki manipulatuak begiratzen hasten da.

Gaizka familia guztia zuribeltzean gainean duela ikusten den fotomontajea.

Ixabel eta Tomas baserri suntsituaren aurrean argazkirako dotore jantzita, inguruan ardi flakoak dituztelarik.

Amamaren argazki serie bat.

Esku ezberdinen serie bat.

Ximurren serie bat, bukatzen ez den ximur luze bat.

Amamak sokatik tiraka bestaldean gaizka alde egin nahian.

Pantalla ezberdinetan sekuntzia ezberdinak ikusten ditugu. oso poetikoak. Laurent harrituta dago irudiekin, inguruan buelta batzuk ematen ditu.

173 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Basoa ikusten ari dira orain amaia eta Laurent. Laurent harrituta dago.

LAURENT

Ederra da guzti hau Amaia.

AMAIA

Benetan?

LAURENT

Oso ona.

Amaia poztu egiten da.

LAURENT

Hemen bertan egitea litzake egokiena. Tokia izugarria da, erakusketa hau egiteko ezinhobea.

Amaia serio ipintzen da.

AMAIA

Hemen?

LAURENT

Erakusketa honentzat leku naturala hauxe da. Pentsatu. Bihar deituko dizut.

Baserrira bajatzen dira. Tomas inguratzen zaie.

AMAIA

Laurent, nire aita. Tomas. Hau bai dela benetan artista.

TOMAS

Artista? Gu baserritar jaio ta baserritar hilko gera.

LAURENT

Baserrira politta daukazu.

TOMAS

Ba, nahiko utzita dago orain. Zer? Sagardo trago bat edo.

LAURENT

Ez, ez. Joan beharra daukat.

Bi muxu ematen dizkio. Tomasi eskua ematen dio.

Kotxea badoa. Ixabel atarira irtetzen da.

TOMAS

Hori zein da...Tratantea?

AMAIA

Gutxigorabehera.

IXABEL

Ondo?

AMAIA

Bueno... Erakusketa hemen bertan egitea proposatu dit.

Ixiltasuna.

IXABEL

Eta hori zuretzat zer da ona edo txarra?

AMAIA

Ez dakit.

IXABEL

Zeba?

AMAIA

Baserria jendez beteko zaigulako.

Tomasek buelta eman eta baratzera zuzentzen da.

IXABEL

Tomas!!! Etorri hona. Hitzegiten ari gara eta.

Tomasek buelta eman eta emakumengana inguratzen da.

IXABEL

Baina ez al dugu hitzegin aldaketa behar zuela baserriak? Hemen aldaketa!

AMAIA

Hemen egiten badegu erakusketa, honek baserri izateari utziko lioke.

IXABEL

Eta erakusketa beste toki batean egiten bada zu joan egingo zara ezta?

AMAIA

Bolada baterako bai, gero bueltatuko nintzake.

IXABEL

Zurea da erabakia, Amaia. Nik nahiago det zu hemen geratzea.

Ixabelek Tomasi begiratzen dio.

IXABEL

Zuk zer diozu?

TOMAS

Zuek badakizue niri turistak zenbat gustatzen zaizkidan.

174 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Kamera pintatutako basotik dijoa. Kolore ezberdinetatik pasatuaz. Berde berdeak dauden hosto batzuetan bukatzen da. Pantaila osoa berde bihurtzen da.

BERDETIK

175 BASERRIA. KANPOA. EGUNA.

Behelainoak baserria estaltzen du. Txoriak kantari entzuten ditugu.

176 AMAMAREN GELA. KANPOA/BARRUA. EGUNA.

Amama ohean esnatzen da. Jaiki eta leihora inguratzen da. Parez pare zabaltzen du leihoa. Haizeak kortinak mugitzen ditu.

Eguna argitzen ari du.

Haizeak Amamaren ile zuri luzea mugitzen du.

Leihotik aldendu eta gelatik irteten da. Berari jarraitzen diogu.

177 BASERRIA. BARRUA. EGUNA.

Amamak eskailerak jaisten ditu. Atariko atea zabaltzen du eta kanpora doa. Atzetik jarraitzen diogu. Basora zuzentzen da. Amama behelaino artean galtzen da.

178 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Amama jarraitzen dugu. Amama behelainoan galtzen da.

179 IXABELEN GELA. BARRUA. EGUNA.

Ixabel ohetik jeiki eta Amamaren gelara zuzentzen da. Ohea hutsik dago. Ixabel nahiko harritzen da.

180 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Ixabel behera jaisten da. Tomas sukaldean dago.

IXABEL

Amama?

TOMAS

Ez dakit.

IXABEL

Ez dago bere gelan.

Ixabelek bilatzen jarraitzen du. Tomas ere mugitzen hasten da.

IXABEL OFF

Amama!!!

181 ESTUDIOA. BARRUA. EGUNA.

Amaia aitak oparitutako ohean lo dago.

IXABEL

Amama hemen al da?

AMAIA

Amama?

182 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Pintatutako basotik Ixabel eta Amaia dijoaz.

IXABEL

Juliana!!!

183 ERREKA ONDOA. KANPOA. EGUNA.

Tomas erreka ondoa begira ari da.

TOMAS

Juliana!!

184 BASERRIRAKO BIDEA. KANPOA. EGUNA.

Xabi baserrirako bidea txokoz txoko begiratzen ari da.

XABI

Amama!!!

185 GANBARA. BARRUA. EGUNA.

Tomas ganbara begiratzen ari da. Leihotik begiratu eta basora begiratzen du.

186 KALEA. KANPOA. EGUNA.

Amaia bere furgonetan kaletik dijoa. Alde guztietara begira dijoa, begiak adi adi dituelarik.

Polizia etxearen aurrean aparkatu eta barrura sartzen da.

187 AMAMAREN GELA. BARRUA. EGUNA.

Amaia amamaren gauzak begiratzen ari da. Armairuak zabaltzen ditu. Ohe azpian begiratzen du.

Leihoak zabalduta jarraitzen du. Haizeak gortinak hegaran mantentzen ditu. Leihoa ixten du, aulkira inguratu eta jertsea hartzen du. Kanpora doa.

188 SARRERA. BARRUA. EGUNA.

Ixabel telefonora zuzentzen da. Eskegi eta zenbaki bat markatzen du. Pixka bat itxoiten du.

IXABEL

Gaizka...

189 ATARIA. KANPOA. EGUNA.

Baserri kanpoan kotxe dexente daude. Jende gaztea ere ugari. Tomasen

txakurrak ere bertan dabilta, nahiko aztoratuak.

Amaia etxetik irteten da. Gazte taldea urduri dago. Xabik walki bat pasatzen dio Amaiari. Amaiak ehiza txakurrei amamaren jertsea ematen die usaintzeko.

Amaia txakur gaztearengana inguratu eta jertsea usaintzeko eman ondoren askatu egiten du. Aita begira du. Ixabel ere bertan da, nahiko urduri dirudi. Tomas begira du.

Taldeak basorako bide hartzen du. Ixabel barrura sartzen da.

190 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Kamera basotik paseatzen ari da. Pauso hotsak entzuten dira.

OFF

Amama!!! Julianaaaaa!!!!

Basotik Amama bilatzen ari den koadrilla ikusten dugu. Euren artean Amaia dago.

AMAIA

Amama!!!!

Txakur gaztea inguruan ari da korrika.

191 PINUDIA. KANPOA. EGUNA.

Xabi beste talde baten aurrean dioa Walki bat eskuetan duela. Ehiza txakurrak inguruan daude.

GAZTEA

Juliana!!!

192 TRENA. BARRUA. EGUNA.

Gaizka tren bateko eserita eserlekuan dioa. Begiak itxitzen ditu.

193 GAIKAREN AMETSA. SOKATIRA.

Basoan mugitzen den soka bat jarraitzen du kamerak. Soka gaizkaren gorputzean bukatzen da.

GAIZKA

Amama!!!!!!

Gaizka basoan gora doa.

Amama etzanda dago garo artean. Ez du batere itxura onik. Lo dagoela dirudi. Bat-batean beldurtu bezala egiten da. Begiak zabaltzen ditu. Kamera atzeraka mugitzen hasten da eta amamaren harridura zerk sortu duen ikusten dugu: Amamaren aurretik soka pasatzen ari da. Kristoren indarra eginaz lortzen du eskuetako bat sokaraino inguratzea. Sokari heltzen dio.

Kolpe batean Gaizka geratu egiten da. Aurrera jarraitzeko imintzioa egiten du baina sokak ez dio uzten. Atzera begiratzen du. Amama indartsu ari da bi eskuekin sokatik tiraka. Gaizkak aurrera jo nahi du baina ezin du. Amamak Kristoren indarra dauka. Gaizkak atzera

begiratzen du eta Amama lurlean bi eskuekin sokatik tiraka ikusten du. Buelta eman eta Amamarengana inguratzen da. Gaizka bere ondoan belaunikatu eta aurpegia garbitzen dio. Amamak ere aurpegia laztantzen dio. Amamaren esku odoleztatuek Gaizkaren aurpegia odolez bete dute.

Amama zutitu eta Gaizkarengandik aldentzen da. Gaizka, Amama nola aldentzen den begira geratzen da. Sokaren punta odoleztatua jarraitzen dugu, momentu batean sokaren punta koadrotik ateratzen da.

194 TAXIA. KANPOA. EGUNA.

Gaizka taxian dijoa erdi lo.

195 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Kandela bat piztuta dago sukaldeko mostradorean.

196 ATARIA. KANPOA. ILUNTZEN.

Baserrira taxi bat iristen da. Gaizka taxitik irtetzen da. "Lagun"-en txokoa hutsik dagoela konturatzen da. Lurlean dagoen katea begira geratzen da.

Gaizkak sukaldeko leihotik begiratzen du. Ixabel dago bestaldean, Gaizkak pare bat kolpetxo ematen dizkio leihoko kritalarari. Ikusi orduko atarira irteten da. Besarkada bero bat ematen dira.

197 SUKALDEA. BARRUA. ILUNTZEN.

Beste familiako batzuk daude sukaldean, hauek agurtzen ditu.

198 GAIKAREN GELA. BARRUA. ILUNTZEN.

Gaizka bere gelan sartzen da. Gela begira geratzen da.

Baserriko arropak jazten ditu.

199 BASERRIA. KANPOA. ILUNTZEN.

Gaizka baserritik irteten da. Trastelekuan makila hartu eta basorako bidea hartzen du.

Gaizka Tomasen aurretik pasatzen da. Biak harritu egiten dira aurrez aurre topatzean. Gaizka geldi geratzen da. Elkarri begiratzen diote. Tomasek keinu baten bidez bere bidea jarraitzeko adierazten dio.

Gaizka basora zuzentzen da. Jarraitu egiten dugu pixka bat batean.

Geratu egiten da. Telefonoa atera eta deitu egiten du.

GAIZKA

Amaia...bai. Hemen nago... Bai... Nora nahi dezu abiatzea?

Makilarekin mendiaren alde bat seinalatzen du.

GAIZKA

Txarako sailera? Bale... Bale.... Amatiño aldera joko dut... Bai, ondo, ondo... Bale...

BASOA. KANPOA. EGUNA.

Gaizka pintatutako basoaren ondotik pasatzen da. Txundituta dago.

Mendian gora jarraitzen du.

GAIZKA
Amamaaaaa!!!!

Mendian gora jarraitzen du indartsu. Tarteka korrika dijoa. Txoko guztietan begira. Gora, behera. Korrika. Izerditan.

Mendian gora dijoa indartsu.

201 BASOA. KANPOA. ILUNTZEA.

Eguzkia sartzen ari da. Amaia eta beste batzuk Amamaren bila jarraitzen dute.

202 BIDEGURUTZEA. KANPOA. EGUNA.

Gaizka bidegurutze baten aurrean dago. Ez daki oso ondo zein bide hartu. Gelditu egiten da. Pixkat deskantsatu egiten du. Alde batera begiratu eta gero bestera. Azkenean bideak alde batera utzi eta erditik, sasi artetik abiatzen da indartsu.

203 BASERRIA. KANPOA. GAUA.

Amaia eta Xabi baserrira iristen dira. Linternekin datoz. Gurasoekin begiradak. Ezezkoa. Jende ugari dago jatekoa eta edatekoa dagoen mahaiaren inguruan.

AMAIA
Gaizka?

IXABEL
Ez da bueltatu.

Amaiak basora begiratzen du.

204 BASOA. KANPOA. GAUA.

Basoa ilun ilun dago.

GAIZKA
Amama!!!!

205 ITURRIA. KANPOA. GAUA.

Gaizka basotik dijoa.

GAIZKA
Amama!!!

Erantzunik ez.

Gaizka iturrira iristen da. Gaizkak basoko iturrian ura edaten du. Aurpegia ere garbitzen du. Nekatua dirudi.

206 BASERRIA. KANPOA. EGUNSENTIA.

Baserrian egunsentia da. Xabi, Amaia eta beste gazte batzuk baserrian elkartu dira. Amaiak txakur gaztea soltatzen du. Txakurra korrika dijoa baso aldera.

Tomas eta Ixabel, taldea basora nola dijoan, begira geratzen dira.

207 ITURRIA. KANPOA. EGUNSENTIA.

Txakur gaztea basotik dijoa. Iturri ondoan Gaizkarekin elkartzen da. Txakurrak aurrera jarraitzen du.

Gaizkak txakurraren atzetik jarraitzen du.

208 PAGADIA. KANPOA. EGUNSENTIA.

Egunsentia da. Txoriak kantari. Ura errekatik behera dijoa. Basoa bizirik dago.

Gaizka basoan dijoa. Alde guztietara begiratzuz.

GAIZKA

Amama!!!

209 PINUDIA. KANPOA. EGUNA.

Amaia, indartsu, pinudian bilatzen ari da.

AMAIA

Amama!!!

210 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Xabi basotik dijoa, alde guztietara begira bere makilarekin.

211 ERREKA. KANPOA. EGUNA.

Txakurra korrika dijoa alde batetik bestera.

Gaizka erreka jaiotzen den lekura iristen da.

Txakurkumea zaunka hasten da kobazuloaren zuloaren aurrean. Gaizka bertara korrika zuzentzen da.

Txakurkumea kobazulora sartzen da. Gaizkak zulotik begiratzen du.

GAIZKA

Amama!!!

Belarria ipintzen du.

GAIZKA

Amama!!

Zerbait entzuten da. Gaizkak mugikorra atera eta linterna pizten du. Txakurra zaunkaka ari da.

212 KOBAZULOA. BARRUA. EGUNA.

Kobazuloan sartzen da. Linternaren laguntzarekin kobazuloako txoko ezberdinak ikusten ditugu. Oihu antzerako bat entzuten da. Gaizka geldi geratzen da.

GAIZKA

¡¡¡Amama!!!

Beste oihutxo bat entzuten da. Gaizka bertara zuzentzen da. bat-batean zerbait zuria sumatzen du barrenean. Bertara doa korrika.

Amama topatzen du odoleztatua, kamisoi zuria zikin zikina eta erdi lo.

Gaizka esnatzen saiatzen da. Lehenengo muxuak emanaz eta kariziak eginez. Gero jada eskuekin kristoren mugimenduak ematen dizkio. Amamak ez du erreakzionatzen baina bizirik dago. Gaizkak eskuetan hartu eta kobatik ateratzen du.

213 PAGADIA. KANPOA. EGUNA.

Amama lurrean etzaten du. Gaizkak telefonoa ateratzen du. Zenbaki bat markatzen du.

GAIZKA

Amaia!!! Topatu det. Erreka ondoko
kobazuloan... Bai...bai...Bizirik dago.
Jaisten hasiko naiz. Zuek irten Lamañoko
bidera.

Gaizkak mugikorra itzali eta amamari besarkada ematen dio, muxuak. Zutitu egiten du. Suabe suabe hitz egiten dio.

GAIZKA

Goazen amama. Etxera eramango zaitut.

Amama erdi lo dago, desorientatua. Ez dauka zutik egoteko indarrik. Gaizkaren gorputzean hartzen du babesa da. Amamaren aurpegiko eta eskuetako odolak Gaizkaren aurpegia odoleztatzen dute.

Gaizkak Amama bizkarrean hartzen du eta korrika doa maldan behera.

Gaizkak ezin du gehiago. Geratu egiten da. Amama lurrean apoiatzen du kontu handiz. Amama erreanimatzen saiatzen da.

GAIZKA

Juliana... Ondo zaude?

Amamak ez du itxura batere onik, odola, lokatza, kamisoi zuria busti-bustia, odolez eta lokatzez zikindua du. Lo dagoela dirudi. Esnatzen saiatzen da. Amamak ez du erreakzionatzen.

Arnasa sakon hartu ondoren besoekin Amama bere bizkarrera ondo estutu eta berriro beherako bidea hartzen du. Amama ez da jada lepora ondo heltzen. Gelditu egiten da.

Gaizkak Amamaren bi eskuak elkartzen ditu eta bidean behera dijoa. Kamera aurretik pasa eta atzetik beheraka nola dijoan ikusten dugu. Beherago baserria ikusten dugu.

Bidean gora Xabi eta Amaia datoz.

Gaizka leher egin dago. Urrunean ikusten ditu Amaia eta Xabi. Gaizka geratu egiten da.

Gaizka maldatxo batean apoiatzen da eta Amama etzaten saiatzen da.

66

Amamaren gorpu gogortua Gaizkaren bizkarrari helduta jarraitzen du. Gaizka konturatzen da Amamaren gorpua oso gogorra dagoela. Hilda dagoela. Beldurtu egiten da. Eta mugimendu azkar batez zutitu egiten da. Amamaren eskuak bere lepotik helduta jarraitzen dute.

GAIZKA

Ahhhhhhhh!!!!

Amaia eta Xabi iristen dira. Gaizka oso urduri dago.

XABI

Lasai, Gaizka, lasai.

Amaia eta Xabik amamaren gorpua Gaizkaren bizkarretik banatzen dute. Lurrean etzaten dute eta Amaiak gorpuaren atal gogortuak mugitzen ditu deskantsuko posizioan ipintzeko.

Muxu ematen dio bekokian. Amaiak besarkada bana ematen dizkie bi anaiei.

Hiruren artean gorpua heldu eta baserrirako bidea hartzen dute. Musikarekin lagunduta arbola artetik jaisten dute, kamisoi zuriz jantzitako Amama. Bere ile solte zuri luzea ia lurreraino iristen delarik. Gaizka eta Amaia malkoak dariola. Xabi hotzago.

214 BASERRIA. KANPOA EGUNA

Baserrira iristen dira Amama eskuetan dakartela hiru anaiak. Tomas makila bat eskuan duela inguratzen zaie. Ixabel baserritik irteten da.

Isilean, Amama bere gelara eramaten dute. Ohean uzten dute Amamaren gorpua. Ixabelek amantala kendu, amamarengana inguratu eta aurpegia garbitzen hasten zaio. Amaia urez betetako ontzi batekin dator.

GAIZKA

Ni arduratuko naiz medikua eta funerariakoei deitzeaz.

Gaizka bere mugikorrean bilatzen hasten da.

AMAIA

Nik ez nuke tanatoriora eramango. Hemen emango nioke agurra. Nik uste Amamari gehiago gustatuko litzaiokeela.

GAIZKA

Niri ideia oso ona iruditzen zait.

Tomasek baiezko keinua egiten du.

IXABEL

Hori oso polita da.

Ixabel hunkitu egiten da.

Gaizka eta Tomas elkarri begiratzen diote. Eskua eman eta sakon begiratzen diote elkarri.

215 AMAMAREN GELA. KANPOA. EGUNA.

Ama eta alabak, Amamaren gorpua prestatzen dute. Ixabelek eskuak txukuntzen dizkio. Amaiak poliki poliki Amamaren ilea orrazten du.

216 BASERRIA. KANPOA. EGUNA.

Gaizkak malkoak begietan dituela baserriko txoko ezberdinak bisitatzen ditu.

217 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Bi zerbeza hartzen dituzte hotzgailutik. Gaizka kanpora irteten da. Xabiri zerbeza bat pasatzen dio.

Gaizkak trago bat edaten du. Tomas agertzen da bere muletarekin. Gaizka basora begira dago.

Gaizka eta Tomasek elkarri begiratzen diote. Xabik mugikorra ateratzen du poltsikotik.

XABI

Bai? Bai... Ondo?... Bai nahiko ondo bai...

Xabi telefonoz hitz egiten badoa. Aita semeak bakarrik geratzen dira. Nahiko deseroso daudela dirudi. Gaizka urduri dago.

GAIZKA

Aita....

Zerbait inportantea esatera doala dirudi baina ixilik geratzen da. Aitak begiratzen dio.

GAIZKA

Zer? ¿Nola daramazu geldik egon behar hori?

TOMAS

Ohitu egiten da bat. Txarrena pasa det.

TOMAS

Eta zu?

GAIZKA

Ondo. Oso ondo.

Gaizkaren mugikorra zarataka hasten da. Gaizkak hartu egin behar duela adierazten dio aitari. Tomasek hartzeko adierazten dio.

GAIZKA

Kaixo... Eskerrikasko... Ondo... Bai...Ez ez... Etxean... bai bai...

Xabi inguratzen da. Tomas berarengana zuzentzen da.

TOMAS

Lagunduko didazu?

XABI

Noski.

Tomas trastelekura zuzentzen da. Xabi atzetik dijoa.

TRASTELEKUA. BARRUA. EGUNA.

Tomasek trontza zaharra muletarekin seinalatzen du. Xabik hartu egiten du.

Tomas trastelekutik irten eta sagastira zuzentzen da. Xabik jarraitu egiten dio.

219 SAGASTIA. KANPOA. EGUNA.

Tomas, Amaia mozten saiatu zen, sagarrondoaren aurrera iristen da. Muleta lurrean uzten du. Xabiri inguratzeko keinu bat egiten dio. Xabi inguratzen zaio. Trontza enborraren gainean kolokatzen du. Tomasek ekiteko keinua egiten du.

Biak trontzarekin arbola mozten hasten dira.

Gaizkak urrunetik ikusten ditu. Beraiengana inguratzen da. Aitari uzteko eskatzen dio keinu batekin. Aitak uzten dio.

Sagarrondoa botatzen dutenean, Tomasek muletarekin ondokoa seinalatzen du. Bi anaiak ondokora inguratu eta hau ere mozten hasten dira.

Tomas biei begira dago harro.

220 AMAMAREN GELA. BARRUA. EGUNA.

Amamaren gelako leihoa zabalik dago. Kortina aireak mugitzen du.

Amaia eta Ixabel amamaren armarioko gauzak begiratzen ari dira. Amaia txundituta dago amamaren gauzekin.

Ixabelek amamaren soineko beltz elegante bat pasatzen dio.

IXABEL

Hau zure biramonarena zen.

Ixabel ateratzen da. Amaia txundituta dago. Gainean ipintzen du eta espilo aurrean begiratzen da.

Ixabel argazki batekin dator. Argazkian birramona agertzen da atera berri dion soineko beltza jantzita. Argazkia begiratzen du. Amaia hunkituta dago. Amari begiratzen dio. Muxu ematen dio.

AMAIA

Amatxo. Argi eduki, beharra dagoenean zure ondoan izango zaitudala. Denok egongo gara elkarrekin! Bale?

Besarkatu egiten dira biak. Negarrez.

221 TRASTELEKUA. BARRUA. EGUNA.

Tomas, Xabik eta Gaizka aizkorarekin habeak egiten ari dira. Isilean. Lanabes zaharrekin egurra lantzen ikusten ditugu.

222 TRASTELEKUA. BARRUA. GAUA.

Tomas, Xabik eta Gaizkak hilkutxa bat egin dutela ikusten dugu.

223

ESTUDIOA. KANPOA. GAUA.

Amaia estudioko bere laneko mahaian, ordenagailu aurrean dago.

Ordenagailuan Amamaren zimurrak lantzen ari da. Pantailako zimurretara sartzen gara.

Amaia ordenagailu aurrean Amamaren irudi ezberdinekin ari da lanean.

Tomas estudioan sartzen da. Amaia ez da konturatzen, kaskoak ipinita bait ditu. Aita irudiak begiratzen geratzen da denboratxo bat. muntatzen ari da Amaia. Tomas begira.

Lo bukatzen du. Amaiak kaskoak kentzen ditu. Buelta eman eta bere aita atzean topatzen du, lo. Esnatu egiten du.

AMAIA

Ondo zaude?

Tomasek buruarekin baietz. Amaiari ba dirudi zerbait bururatu zaiola.

AMAIA

Lagunduko didazu bideoarekin?

TOMAS

Nik zertan lagunduko dizut ba?

AMAIA

Ahots pixka bat sartu nahi det. Zuk ahotsa ederra daukazu.

Tomasek baietz. Amaia ordenagailu aurrean jartzen da. Pantailan amamaren zimurrak ikusten ditugu.

224 ESTUDIOA. KANPOA/BARRUA.EGUNA.

Estudio erdian Amamaren gorpua ipinia dago hilkutxa egin berrian. Inguruan kandela piztu ugari dituzte baita lora eta landareak ere.

Amaia jendaurrera ateratzen da. Birramonaren soineko beltza jantzita du. Oso dotore.

AMAIA

Amama... Amama Juliana... Beste garai bateko Amama maitia...lujo bat zu ezagutu izana...

Amaia hunkitu egiten da.

AMAIA

Lantxo hau prestatu det zuretzat... Eskerrikasko.

Amaiak muxu bat bidaltzen du goraka. Argiak itzaltzen dira.

225 SEK ESPERIMENTALA AMAMA

(Sekuentzia hau Amaiak grabatu eta landu dituen irudi eta audioekin osatutako bideo experimental bat da. Irudi zaharrak, berriak, irudi digital landuak. Baita Amaiak ingurukoei grabatutako elkarrizketak: Aitari, amari, auzokoei eta Amamari. Amaiak berak eta Tomasek

xuxurlatutako testu poetikoak ere izango ditu. Soinua ere oso
 esperimentalak izango da. Gidoi itxiaren barruan inprobisaziorako lekua
 da)

ZIMURRAK

Zimurrak amamaren eskuetan bukatzen dira.

TOMAS OFF
 Mundu zaharra...Badoa.

AMAIA OFF
 Badator...Mundu berria.

ESKUAK

Esku ezberdinekin kontrasteak.

AMAIA OFF
 Alabaren alaba.

Tomasen esku zailduak.

TOMAS OFF
 Amaren ama.

Amaren esku zailduak.

AMAIA OFF
 Alabaren amaren amama.

Amamaren esku zimurtuak.

TOMAS OFF
 Amamaren amama.

Jaioberriaren esku bigunak. Eskularruekin estalitako eskuak. Amaiaren
 esku txikiak.

Amamak xuxurlatutako honomatopeiak ere entzuten ditugu.

GORPUTZ NAHASTUAK

Fotomuntaketa teknikak erabiliz familiakoen gorputzeko atal ezberdinak
 nahastuaz eginiko muntaketa azkar bat ikusiko dugu.

AMAIA OFF
 Amamaren amamaren amamaren amamaren amama...

Amamaren begiak Amaiaren begiak ordezkatuta, Tomasen esku zailduak
 amaiaren gorputzean ipiniak....

TOMAS OFF
 Amamaren amamaren amamaren amamaren amama...

ARGAZKI ZAHARRAK

Amama ezberdinen argazkiak ikusten ditugu.

AMAMA ilara

Amama askotan errepikatua bukatzen ez den ilara batean ikusten dugu.
Behelainoak basoa hartua dauka.

AMAMA

Loa loa... txuntxurunberde.... loa loa....
masusta....

BASOA

Kamera behelainoan murgiltzen da. Behelaino artean Amaia agertzen
zaigu. Kamera baso margotutatik paseatzen hasten da.

AMAIA OFF

....Mundu zaharra ere izan zen berria....

TOMAS OFF

...mundu berria ere izango da zaharra...

AMAIA OFF

...Izan zirelako gara....

TOMAS OFF

...Garelako izango dira...

Behelainotan galtzen da kamera.

226 ESTUDIOA. BARRUA. EGUNA.

Estudioko argiak pizten dira. Familia eta lagunak elkarri agurtzen
hasten dira. Amaiari bideoa eskertzen diote.

Tomás nahiko hunkituta ikusten dugu. Ixabelek eskua heltzen dio.

Gaizka hunkitua ikusten dugu. Amaiarengana inguratzen da. Besarkada
estu bat ematen dio.

GAIZKA

Sekula egin duzun gauzarik onena da.

Estudioaren erdian. Amamaren gorpua Tomasek egindako hilkutxan dago,
kandelaz eta kolore ezberdinetako loraz inguratua. Amama bere biloba
Haizearekin Amamaren gorpuaren ondoan daude. Lasai dago txikia.
Amamarengana inguratzen gara. Planoa zimurretan bukatzen dugu.

227 BASERRIA. KANPOA. EGUNA.

Funerariako kotxea iristen da etxera.

228 ESTUDIOA. BARRUA. EGUNA.

Tomas, Xabi, Amaia eta Gaizkaren artean hartzen dute hilkutxa.
Kanporaino eraman eta funerariakoen laguntzarekin kotxera sartzen
dute.

Denak kotxeetan sartu eta funerariako kotxearen atzetik kotxe ilada
bidean behera ikusten dugu.

229 TABERNA. BARRUA. EGUNA.

Amaia, Gaizka eta Xabi tabernako barran daude eserita. Bakoitzak bere

edaria du aurrean. Patxarana Gaizkarentzat, ardo beltza Amaiarentzat eta gintonika Xabirentzat.

XABI

Ba dakizue japoniako herrixka batean zaharrak hiltzera mendira eramateko ohitura dutela?

Xabik eta Gaizkak bere arreba begiratzen dute.

AMAIA

Ematen du Amamak ba zekiela bere ordua iristen ari zela. Izugarria da.

Gaizka urduri dago.

XABI

Niri hiltzeko oso modu elegantea dela iruditzen zait.

Gaizkak patxaranari trago luze bat ematen dio. Arnasa hartzen du.

GAIZKA

Nik oraindik ezin dut amama nire gainetik kendu.

Isilik geratzen dira momentu batean.

GAIZKA

Oso nahastua nago. Ez dakit zer egin. Bihotzak geratzeko eskatzen dit, buruak joateko.

AMAIA

Niri alderantziz gertatzen zait.

Bata besteari begiratzen diote.

XABI

Ba ni aspaldiko partez baserriarekin gozatzen hasi naiz.

Gaizkak kopa jasotzen du. Besteek ere bai.

XABI

Mundu berriarengandik.

Tragoa edaten dute.

230 AMAMAREN GELA. BARRUA. GAUA.

Amamaren gela hutsik dago.

231 TOMASEN GELA. BARRUA. GAUA.

Tomas eta Ixabelek elkarrekin egiten dute lo.

232 AMAIAREN GELA. BARRUA. GAUA.

Amaia bere gelan lo. Aitak egin zion ohea nabarmentzen da.

233

XABIREN BASERRIKO GELA. BARRUA. GAUA.

Xabiren familia guztia bi ohe handietan lo.

234 GAIZKAREN GELA. BARRUA. GAUA.

Gaizka ohean lo.

235 BASOA. KANPOA. EGUNA.

Kamera baso margotutik pasatzen ari da.

236 BASERRIKO ATARIA. KANPOA. EGUNA.

Txakur gaztea kateari lotua dago. Egunargitzen du baserrian.

237 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Amamaren argazki zahar batetik atzeraka dijoa kamera. Amamaren besaulki hutsetik pasa eta mahaian bukatzen du mugimendua. Familia guztia dago mahaian. Gosaltzen. Amamaren argazkiak ikusten ari dira. Giro onean daude denak.

238 BASERRIA. KANPOA/BARRUA. EGUNA.

Tomas goiko basotik dabil. Ehizako txakurrak inguruan bueltaka dabilta. "Koxka" txakur gaztea ere eurekin dabil jolasean. Amaia harritu egiten da. Amaia aitari begira geratzen da.

Kataia lurrean suelto dagoela ikusten dugu txakur gaztearen txokoan.

239 GELA. BARRUA. EGUNA.

Gaizkak plastikozko maleta berria ixten du. Badoa gelatik.

240 ATARIA. KANPOA. EGUNA.

Gaizkak amari kristoren besarkada ematen dio. Niko eta Garaziri ere. Amaia kotxean du zain. Xabik ere besarkada.

Tomas ere bertan da. Gaizka inguratzen zaio.

TOMAS

Bidaia ona eduki. Barkatu txarrak Gaizka.

Gaizkak eskua luzatzen dio. Bestea sorbaldan ipintzen dio. Tomas eta Gaizkak eskua ematen diote elkarri. Estu estua. Benetakoa. Elkarri begiratu eta irribarre egiten diote. Gaizka gustura geratzen da.

241 KOTXEA. BARRUA. EGUNA.

Amaiak musika ipintzen du. Gaizka hunkituta dago. Amaia isilik.

242 AIREPORTUA. KANPOA. EGUNA.

Besarkada anaien artean. Erruberazko maletatxoarekin aireportura zuzentzen da Gaizka. Amaia begira geratzen da. Atea zeharkatzera doanean bueltatu eta eskuarekin azken agurra eskaintzen dio. Amaiak ere eskua jasotzen du.

Berak kendu duela uste duen arren bizi guztian izango du pisu hori bere bizkar gainean. Txikitari eraikitzen da gu garena eta betirako irauten du horrek. Saiatu gaitezke aldatzen baina lehen pauso hoiek markatzen digute bizitza. Destinoa idatzita dago. Gure amamak margotu zuen aspaldi.

Amaia kotxean sartu eta badoa. Musika ipintzen du.

243 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Ixabel amamaren silloian eserita dago. Gustora dirudi. Amaia begira du.

Kamera Ixabelengana inguratzen da.

AMAIA OFF

Ez dago bizitzan behar dezunean inguruan izango dituzula jakitea baino gauza lasaigarriagorik.

Kamera Amamaren argazkera inguratzen da.

244 ESTUDIOA. KANPOA/BARRUA. EGUNA.

Amiak estudioko koadro ezberdinak egurrezko kaxetan sartzen ari da. Xabik laguntzen dio. Amiak bere anaia begiratzen du. Kamiseta gorri bat du jantzita.

AMAIA OFF

Jada ez dirudi hain alferra. Jada ez dira hain handiak bere nagiak. Jada ez da ain zuria.

Xabi obra ezberdinak bidairako babesten ikusten dugu.

AMAIA OFF

Nahastu dira koloreak. Mundu zaharra badoa. Kolore berriak datoz. Noizbait zahar bihurtuko diren mundu berriak datoz.

Kanpoan atea zabalik dagoen furgoneta ondoan uzten dituzte obra guztiak.

245 BASERRIA. KANPOA. EGUNA.

Tomasek Koxka soltatzen du. Amiak aitari begiratzen dio. Hau txakurrekin disfrutatzen ari da.

AMAIA OFF

Aitaren mundua baserriko mugetan bukatzen da. Hemen du bere lurra eta zerua. Hemen bera da oso osorik, ez zaio ezer falta.

Amaia baserria ederki asko ikusten den lekura inguratzen da. Begira geratzen da.

AMAIA OFF

Nik berriz, ez dakit non hasi eta non bukatzen den nire mundua. Oraindik bilatzen

nabil nire lekua.

Paseatzen hasten da.

AMAIA OFF

Argi dudan gauza bakarra gure baserri zahar
hau mundu horretako parte inportantea dela.

Amaia aitarengana inguratzen da. Aitaren ondoan eseri eta txakurrekin
jolasten dute.

246 AMAIAREN GELA. BARRUA. GAUA.

Amaia maleta egiten ari da gelan. Ixten du.

Amaiak ispilu aurrean krema ematen du aurpegian. Begiko marra beltzez
pintatzen du ondoren. Bukatzeko, ezpainak gorritz pintatzen ditu.

Maleta hartu, gela begiratu eta badoa.

247 SUKALDEA. BARRUA. EGUNA.

Ixabel mahaia ipintzen ari da. Bi kubierto ipintzen ditu.

Amaia sukaldean sartzen da. Amarengana inguratzen da.

IXABEL

Dena prest?

Amaiak buruarekin baietz.

AMAIA

Zu zer? Ondo?

IXABEL

Oso ondo.

Amaiak kubiertoak begiratzen ditu.

IXABEL

Lasai. Ederki egongo gara.

AMAIA

Edozer gauza deitu bale?

Besarkada ematen dira.

248 BASERRIA. KANPOA. EGUNA.

Tomas sarrerako bankoan eserita dago. Amaia maletarekin irtetzen da.
Ixabel ate ondoan geratzen da. Amaiak maleta furgonetan sartzen du.
Amaia aitarengana inguratzen da. Tomas jaiki egiten da. Tomas bi musu
ematera dijoa. Amaiak besarkatu egiten du. Hasieran nahiko forzatua
dirudi, baina bukaeran benetakoa, luzea. Amaiak pozik begiratzen du
Ama. Hau pozik dago.

Amaia furgonetan sartu eta badoa.

Kamera furgonetarekin batera dijoa. Ixabel eta Tomasek eskua jasota
agurtzen dute. Atariko bankoan esertzen dira.

Kamerak bihurgune bat hartu eta desagertzen diren arte. Baserrirako bidetik behera jarraitzen du kamerak, bi aldetara arbolak.

Jada kotxeak baserrirako pista utzi eta kalean sartzen da.